

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

**EAEko IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO  
LURRALDEAREN ARLOKO PLANA - ISURIALDE KANTAUARIARRA**

**3. LIBURUKIA**

**1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN  
IBAIK**

1998ko AZAROA

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

**EAEko IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO  
LURRALDEAREN ARLOKO PLANA - ISURIALDE KANTAUARIARRA**

**3. LIBURUKIA**

**1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA**  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN  
IBAIK

<b>1. MAPA OROKORRA. ARROEN BANAKETA .....</b>	<b>1</b>
<b>2. BIDASOA, JAIZUBIA, OIARTZUN, URUMEA ETA AÑORGA IBAIEN ARROAK.....</b>	<b>3</b>
2.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak .....	4
2.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak .....	11
2.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak .....	16
<b>3. ORIA IBAIAREN ARROA .....</b>	<b>20</b>
3.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak .....	21
3.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak .....	25
3.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak .....	29
<b>4. UROLA, DEBA, INURRITZA, NARRONDO ETA SATURRARAN IBAIEN ARROAK.....</b>	<b>36</b>
4.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak .....	37
4.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak .....	43
4.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak .....	54
<b>5. ITSASERTZEKO ARROAK .....</b>	<b>63</b>

**MAPAK**

B.0. MAPA	MAPA OROKORRA.....	E: 1/150.000
B.1.1. MAPA	BIDASOA, JAIZUBIA, OIARTZUN, URUMEA ETA AÑORGA IBAIEN ARROEN MAPA OROKORRA .....	E: 1/75.000
B.1.2. MAPA	ORIA IBAIAREN ARROAREN MAPA OROKORRA IPARRA.....	E: 1/75.000
B.1.2. MAPA	ORIA IBAIAREN ARROAREN MAPA OROKORRA HEGOA .....	E: 1/75.000
B.1.3. MAPA	UROLA, DEBA, INURRITZA, NARRONDO ETA SATURRARAN IBAIEN ARROEN MAPA OROKORRA IPARRA .....	E: 1/75.000
B.1.3. MAPA	UROLA, DEBA, INURRITZA, NARRONDO ETA SATURRARAN IBAIEN ARROEN MAPA OROKORRA EGOA .....	E: 1/75.000

## EAEko IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA - IRUSIALDE KANTAUARIARRA

### 3. LIBURUKIA

#### 1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIK

#### 1. MAPA OROKORRA. ARROEN BANAKETA

Mapa orokor bat, B.0. mapa deitu duguna, egin dugu, 1/150.000 eskalara, eta bertan Gipuzkoako itsasertzera isurtzen duten ibaiei dagokienean LAParen aztergai den sare hidrografikoa eta arroen eta azpiarroen egitura orokorra adierazi ditugu grafikoki.

Mapan ondoren adieraziko ditugun irizpideen arabera ezarri den sare hidrografikoaren eremua definitu dugu:

- Sarearen eremua Gipuzkoako Lurralde Historikoan isurtzen duten eta EAEkoak diren arro hidrografikoen lurraldeen multzoari dagokio.
- Horrenbestez, bertan Bizkaiari dagozkion Deba arroaren zonak (Ermua udalerria eta Mallabia, Zaldibar eta Elorrio udalerrien zati batzuk), baita Arabari dagozkion beste batzuk (Aramaio udalerriaren zati bat) ere hartu dira barne. Bestalde kanpo gelditu da Eibar udalerriaren zati bat, bere urak Artibai ibaira isurtzen dituen, hain zuzen ere.
- Bestalde, salbuetsi egin dira EAEkoak ez diren Bidasoa, Urumea eta Oria ibaien arroen zatiak, hau da, Nafarroa eta Frantziari dagozkienak.
- Halaber, ez dira aintzat hartu isurialde mediterraneoarrari dagozkion Araba eta Gipuzkoako partzoneriako eremuak.

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

Beraz, eremuan honako arro hauek bereizi ditugu (ikus B.0. mapa orokorra).

- Bidasoa ibaiaren arroa
- Jaizubia ibaiaren arroa
- Oiartzun ibaiaren arroa
- Urumea ibaiaren arroa
- Añorga ibaiaren arroa
- Oria ibaiaren arroa
- Inurritza ibaiaren arroa
- Urola ibaiaren arroa
- Narrondo ibaiaren arroa
- Deba ibaiaren arroa
- Saturraran ibaiaren arroa

Zerrenda hori itsasertz honetako gainerako arro txikiekin osatuko dugu.

Banaketa ezarri ostean, LAPak ezarritako zehaztapen nagusiak aztertuko ditugu, arro hidrografikoka bereizita.

## **2. BIDASOA, JAIZUBIA, OIARTZUN, URUMEA ETA AÑORGA IBAIEN ARROAK**

Bidasoa, Jaizubia, Oiartzun, Urumea eta Añorga ibaien arroen mapa orokor bat egin dugu, B.1.1. izeneko, 1/75.000 eskalara, eta bertan honako elementu hauek adierazi ditugu:

- Km<sup>2</sup> 1 baino gehiagoko adar-arroa duten ibaibide guztien sare hidrografikoa.
- 10 Km<sup>2</sup> baino gehiagoko adar-arroa duten ibaibide guztien izenak eta puntu kilometrikoak eta sare hidrografikoaren punturik esanguratsuenetako adar-arroen azalera.
- Arro nagusien, 10 km<sup>2</sup> baino gehiagoko azpiarroen eta gainerako azpiarro txikien mugaketa.
- Aiako Harriko Parke Natural deklaraturako area eta Txingudiko Plan Bereziari dagokion area.
- "Natura 2000" sarea barne hartutako lekuak.
- Interes naturalistikoko areak.
- Udal-plangintzan hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako eremuak.
- LAParen aplikazio-eremuaren muga, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren muga eta udalerrien mugak.

Ondoren LAParen zehaztapan nagusiak xeheago aztertuko ditugu, ingurunearen, hidraulikaren eta hirigintzaren inguruko osagaien arabera, arroka banatuta.

## 2.1. INGURUGIRO-OSAGAIAREN ALDERDIAK

### Bidasoa ibaiaren arroa

Planari dagokionean Bidasoa ibaiaren ezkeraldeko ertza Nafarroarekiko mugatik, Endarlatzatik, aurrera bakarrik hartu da barne. Ibaiarte honetan, Endarlatzatik Behobiara, ibaiaren erriberan bertako basoak eta belardi eta labore-lurrak txandakatzen dira. CN-121 errepidea, ibaiaren ezkeraldeko ertzaren ondoan, horrekiko paralelo, doana eten-faktore bat da hegaletako mendiei dagokienean. Azken ibaitartean, Behobiatik bokalera, Bidasoa ibaiaren erribera guztiz aldatuta dago Irun eta Hondarribia udalerrien presentziaren eraginez. Padurako landarediak, Bidasoako irlak ordezkari egoki dituenak, ekarri handia egiten dio estuarioaren balio naturalistikoari.

Ezkeraldeko ertzeko adarrik garrantzitsuenen artean Endara erretena, ibilbide guztian zehar erribera-basoek estalitako ertzak dituen, nabarmen dezakegu. Erribera-baso honek egoki jarraitzen dio mendi-hegaletako hariztiari (gurbitzak ere badituen hariztiari). Baso-masa horren hedadura, artatze-baldintza onak eta interes berezia duten espezie batzuen presentzia direla eta, ingurune honek balio naturalistiko handia du.

Bai Bidasoa ibaiaren Gipuzkoako zatiak, bai Endara erretenak interes handiko ornodunen fauna dute. Horien artean izokin arrunta (*Salmo salar*) azpimarra dezakegu. Espezie migratzaile hau, EAEko arro kantauriar guztietan agertzen zena, egun Bidasoa ibaiaren arroan baino ez da agertzen. Beste arrain-espezie migratzaile batzuk ere badira, hala nola kodaka (*Alosa alosa*), itsas amuarraina (*Salmo trutta trutta*) eta aingira (*Anguilla anguilla*). Zarboaren (*Gobio gobio*) presentzia ere nabarmentzekoa da, EAE barruko banaketa naturalean. Endara erretena arrain ez diren beste ornodun batzuei dagokienean ere fauna-ingurune garrantzitsua da. Horien artean honako hauek aipa ditzakegu: desman piriniarra (*Galemys pyrenaicus*), martin arrantzalea (*Alcedo atthis*) eta ur-zozoa (*Cinclus cinclus*).

Bidasoa ibaia, Gipuzkoako ibai nagusien artekoa, da ur-kalitate handiena duena. Hori bertako arroaren erabilerak batez ere basozaintzari, nekazaritzari eta abeltzaintzari lotutakoak izateari zor zaio. Biztanleguneak ez dira oso entitate handikoak eta horietako batzuk arazketa-sistemak dituzte. Bertako industrializazioa ez da oso handia. Gipuzkoa sartzan denean, bada, urak kalitate handia du. Beste horrenbeste esan dezakegu Endara erretenari dagokionean ere, ur-kalitate handia baitu.

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

Bidasoa ibaiaren arroan (Endara erretenaren arean) Aiako Harriko Parke Naturalaren zati bat dugu. Bestalde, Bidasoaren estuario-zonaren zati handi bat Txingudiko Plan Berezia barne hartuta dago.

Berreskuratzeko premia izan dezaketen zonei dagokienean, Txingudiko Plan Bereziak hainbat jarduketa hartu ditu barne. Horiek bere berariazko memorian kontsulta daitezke.

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

### **Jaizubia ibaiaren arroa**

Jaizubia ibaiaren arroa drenatzen duten erretenek antzeko ezaugarriak dituzte beren ingurugiro-egoerari dagokionean. Beren erriberetako landaredia haltzadi eta hariztien eta erreken ertzetaraino iristen diren sega-belardien txandakako zatiek osatzen dute. Beheko aldean labore-lurrak eta baratzeak agertzen dira. Jaizubia erretenaren azken zatian dagokionean lezkadiak eta erretenaren ertzeko banaketa mugatuko padurako landaredia dira azpimarragarriak. Ruderalizatu eta aldarazitako tarreak ere badira.

Faunaren ikuspegitik arrain hiruarantzaren (*Gasterosteus aculeatus*), Gipuzkoan oso ezaguna ez den estatusa duen baina jaizubia erretenaren beheko aldean populazioa egonkorra duen arrain-espeziearen, presentzia egiaztatu dugu.

Jaizubia erretenean uraren kalitatea oro har ona da eta beheko zonan geroz eta handiagoa den eutrofizazioa du, nekazaritzako eta abeltzaintzako erabileren ondorioz.

Inguru honetan ez dago area babestu deklaraturako espaziorik. Alabaina, Txingudiko Plan Bereziak Jaizubia erretenaren azken ibaitartearen zati handi bat hartzen du barne.

Txingudiko Plan Bereziak paduraren zona batzuk birstortzea du bere zehaztapenen artean.



### **Oiartzun ibaiaren arroa**

Oiartzun ibaiaren goi-ibarrak erribera-basoaren garapen eta jarraitasun ona izatea du ezaugarri. Beren hedadura eta artapen-maila direla-eta nabarmentzekoak dira Txenpelarre eta Borda erretenen goi-ibarretako hariztiak. Dena dela, koniferoen birlandatzeek eta otalurren zonek azalera adierazgarria betetzen dute eta zenbait zonatan ibaiaren ertzeraino ere iristen dira.

Arditurri eta Penadegi ibaien elkargunetik ibaian behera goazela, belardiek birlandatzeak ordeztzen dituzte haranen hondoetan, gisa horretan galeria-basoaren, zenbait tartetan bananondoen ilarek osatuko dutenaren, garapena mugatuz. Beheko zonan eta bokalean ruderalizatutako areei emango diete bide. Hori dela eta, azken ibaitartean degradazioa oso handia izango da, izan ere, maiz egin dira ubiderapenak teknika gogorak erabiliz. Pasaiaiko badia ere oso humanizatuta dago eta ia ez dago jatorrizko padura-landarediaren arrastorik.

Oiartzun ibaiaren goi-ibarrak ondo egituratutako ornodunen komunitatea du eta bertan, bertako kalitatearen adierazgarri, desman piriniarra izeneko espeziea nabarmen dezakegu. Ibai-amuarraia (*Salmo trutta fario*) ere ikus daiteke ibaiaren ibilbidearen zatirik handiengan, nahiz eta Oiartzundik behera ez izan oso ohikoa eta azkeneko ibaitartean oso arraroa izan.

Uraren kalitatea handia da goiko ibaitartean. Kalitateak zertxobait egiten du behera Arditurri ibaiak bertako meatzeetatik ekartzen dituen metalen eraginez. Oiartzungo hiri-isurketek berriz ere uraren kalitateak behera egitea izaten dute ondorio. Bertan agorraldian uraren kalitatea nahiko txarra izatera irits daiteke. Azkeneko ibaitartean, hipermerkatuen eta Fanderiaren inguruan, da uraren kalitatea txarrena, egiten diren isurketak direla eta. Dena dela, Errenteria eta Pasaiaiko zonako isurketa asko, zuzenean Pasaiaiko badian egiten zirenak, behin-behineko irtenbide gisa, itsasora ari dira egiten. Horrek aipatutako badiako uraren kalitatea nabarmen hobetzea ahalbidetu du.

Oiartzun ibaiaren goi-arroaren eta bere erretenen zati handi bat Aiako Harriko Parke Naturalean barne hartutakoa da.

Berreskuratzeko premia duen ibaitarte gisa honakoa proposatu da:

- Arditurri erretena: Arditurriko meatzeen eta bere hondakindien eragina duen ibaitarte.

### **Urumea ibaiaren arroa**

Urumea ibaiaren goiko zatia, Añarberen bokaletik hurbilen dagoena, da erribera-basoa ondoen kontserbatzen duena. Bertan haltzadi kantauriarra da nagusi. Sektore honetan ondo jarraitzen die Añarbeko hegaletako hariztiei, eskuinaldeko ertzean. Ezkerraldeko ertzean, berriz, GI-3410 errepideak etengabe mozten du basoaren jarraitasuna.

Ugaldetxotik ibaian behera, erribera-basoa bananondoen eta haltzen ilarek osatzen dute. Gisa horretan, ia etenik gabe, ibaiaren bi ertzak betetzen ditu Hernani udalerrira iritsi arte. Ibaite honetako zonarik baxuenean bananondoa hasten da nagusitzen.

Hernanitik behera ertzak oso humanizatuta daude. Hori Donostia, Loiola, Martutene, Astigarraga, Ergobia eta Hernani herriguneei dagozkien area ruderalizatuen eremuan islatzen da. Astigarraga eta Ergobia inguruan belardi- eta labore-zona batzuei eusten zaie eta zati batzuetan ertzetako bananondoen ilarek hedadura esanguratsua dute. Ubideratu ez diren areei dagokienean, aurreikuspenen arabera hurrengo urteetan egingo diren ubiderapen-proiektuak dituztela esan genezake.

Padurako landaredia ia erabat desagertu da Urumea ibaiaren bokalean.

Beren artapen-maila dela eta Urruzuno eta Landarbaso erretenak nabarmen ditzakegu. Bi horietan erribera-basoa da nagusi eta zona batzuetan hariztiekiko duen jarraitasuna ona da, beste zona batzuetan koniferoen birlandatzeen presentzia nagusitzen bada ere. Haltzadiaren jatorrizko konposizioa aldatu egin da zenbait sektoretan beste espezie batzuen presentzia dela eta. Hona horietako batzuk: akaziak (*Robinia pseudoacacia*), haritz amerikarra (*Quercus rubra*), eta abar.

Arroaren barruan azpimarratzekoa da jauzi hidroelektrikoen eragin handia. Horien arteko 8 dira egun martxan daudenak. Horietako 5ek beren norietan arrainei iragaitea ahalbidetzen dieten lekuak dituzte. Zentral horietako 4k, bestalde, ur baxuen garaian ez dituzte errespetatzen gutxieneko emari egokiak.

Urumea ibaiaren Gipuzkoako zatiak ornodunen komunitate interesgarri du lurralde historikoan sartzen denetik Hernanira iritsi arte, izan ere, bertan alterazio fisikoak horietako batzuen existentzia mugatzen du. Arrain-komunitatean izokin arrunta sartu

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

da, Gipuzkoako Foru Aldundiak espezie hori berriz sartzeko plan bat jarri baitu abian. Bertako beste arrain-espezie batzuk, amuarraina, ezkailua (*Phoxinus phoxinus*), mazkarra (*Noemacheilus barbatulus*) eta aingira esate baterako, ia ibilbide guztian barrena agertzen dira. Beste espezie batzuk ere aipa genitzake: martin arrantzalea, ur-zozoa eta ur-ipurtatsa (*Mustela lutreola*), berriki aipatu izan dena.

Beheko aldean, aipatutako espezie horiekin batera ur gazietako berezko espezieak agertu dira, hondoetako korrokoia (*Chelon labrosus*) eta platuxa latza (*Platichthys flesus*) adibidez. Beheko ibaitarte honetan exijentzia gutxien dituzten espezieak dira nagusi, batez ere aingira. Gainerako ornodunei espezie ubikistak gailentzen zaizkie.

Urumea ibaiko uraren kalitatea nabarmen hobetu da azken urteetan saneamenduari dagokionean egin diren ahaleginei esker. Gaur egun isurkinen guztizkoaren %95 baino gehiago jada bilduta dago Urumeako kolektorean. Gisa horretan, baita ibaiaren zonarik baxuenetan ere, uraren kalitatea onargarria da. Garai batean, papergintzaren eraginez izandako poluzioak kaltea handiak sortzen zituen ibaian Hernanitik aurrera, beheko zatian poluzio handiko egoera sortuz. Isurkin horiek Urumeako kolektorean biltzeak eta enpresak ixteak uraren kalitatea hobetzea ahalbidetu dute.

Arroaren goiko aldean Aiako Harriko Parke Naturala, Urumea ibairaino Añarbeko bokalearen ingururaino luzatzen dena, dugu.

Arroan bere ertzak berreskuratzeko premia duen zona bat definitu da:

- Urumea, Karabelgo zubiaren eta "La Harinera"ren arteko zatia (10.5 PK eta 11.5 PK arteko zatia gutxi gorabehera).

### **Añorga ibaiaren arroa**

Añorgaren arroa nagusiki bi erretenak osatzen dute: Añorga erretenak eta Igara erretenak. Horietako lehenengoan, Añorga eta Donostiako herriguneen garapenaren eraginez ia erabat degradatu dira ertz guztiak, ruderalizatuta daudenak. Erretenaren bokalea desbideratzeak eta zona hezeak lehortzeak berekin ekarri du padura-areak erabat suntsitzea.

Igara erretenak bestelako egoera du, izan ere, bertako erriberek zuhaitz-estalki onari eusten diote, nahiz eta, hegaletako erabilera nagusia sega-belardiak direnez, estalki hori ertzetara mugatutakoa izan. Azken zatia degradatuta dago, erriberako landaredirik gabe, industria-poligonoaren eta Igara-Ibaeta auzoaren garapenaren ondorioz.

Faunaren ikuspegitik, hegoaldeko zuhaitz-igelen (*Hyla meridionalis*), egoera larrian daudenen, presentzia da azpimarragarria.

Arro honetan ez dago deklaraturako espazio naturalik.

## 2.2. HIDRAULIKA-OSAGAIAREN ALDERDIAK

### Bidasoa ibaiaren arroa

Bidasoaren arroak 700 Km<sup>2</sup>-ko guztizko azalera du, nahiz eta 30 Km<sup>2</sup> bakarrik izan Gipuzkoako lurraldeari dagozkionak eta, beraz, LAParen eremuan barne hartutakoak.

Hainbat erkidegori dagokion arroa da, izan ere, bere lurraldearen zati handi bat, 670 Km<sup>2</sup> gutxi gorabehera Frantzia eta Nafarroan dago.

Bidasoaren adar-arro adierazgarri gisa Endara ibaia, 20 Km<sup>2</sup> dituen, aipa dezakegu, Gipuzkoari ibai horren zati bat bakarrik dagokion arren.

San Anton urtegia, arroaren goiko aldean kokatutakoa, Bidasoa Beheko Ur Horniduren Sistemari (Txingudiko Uren Partzuergoari) dagokio.

Bidasoa ibaiak, LAParen eremuari erreparatuz gero, 10 km-ko luzerako luzekako garapena du Santiago zubitik Endarlatzaraino. Itsasoko eta lurreko mugabanaketa-lerroa 7 Km sartzen da itsasadarrean Santagio zubitik aurrera.

Bidasoa ibaiaren arroaren ibaibidea ondoren adierazitako ibaitarteetan bana genezake ikuspegi hidraulikoaren arabera:

#### VI kategoriako ibaitarteak ( $600 \text{ Km}^2 < A$ )

Bidasoa, 0 (Santiago zubiaren azpian kokatutako itsasadarraren puntua) - 10,2 Km (Endararekiko elkargunea)

#### I kategoriako ibaitarteak ( $10 < A \leq 50 \text{ Km}^2$ )

Endara, 0 (Bidasoarekiko elkargunea) - Endarako urtegia

#### 0 kategoriako ibaitarteak ( $1 < A \leq 10 \text{ Km}^2$ )

LAParen informazio grafikoan adierazitako erreken multzoari dagozkio, berariazko identifikaziorik gabe.

#### 00 kategoriako ibaitarteak ( $A \leq 1 \text{ Km}^2$ )

LAParen dokumentazio grafikoan barne hartzen ez diren gainerako erreka txiki edo aldizkako isurketen ibaibideei dagozkie.

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

### **Jaizubia ibaiaren arroa**

Jaizubiaren arroak 30 Km<sup>2</sup>-ko guztizko azalera du.

LAParen antolamendu-eremuan guztiz barne hartutako erkidego barruko arroa dugu.

Jaizubiak 5 Km-ko garapena du eta bere adar nagusia Ugalde erretena da. Markek eragindako itsasadarraren zonak 2,5 Km-ko garapena du.

Jaizubia ibaiaren arroaren ibaibidea ondoren adierazitako ibaitarteetan bana genezake ikuspegi hidraulikoaren arabera:

#### **I kategoriako ibaitarteak** ( $10 < A \leq 50 \text{ Km}^2$ )

Jaizubia, (Txingudiko badiako bokalea, Amute zubitik 150 metro behera) - 3,4 Km (Ugalde erretenarekiko elkargunea).

#### **0 kategoriako ibaitarteak** ( $1 < A \leq 10 \text{ Km}^2$ )

LAParen informazio grafikoan adierazitako erreken multzoari dagozkio, berariazko identifikaziorik gabe.

#### **00 kategoriako ibaitarteak** ( $A \leq 1 \text{ Km}^2$ )

LAParen dokumentazio grafikoan barne hartzen ez diren gainerako erreka txiki edo aldizkako isurketen ibaibideei dagozkie.

### **Oiartzun ibaiaren arroa**

Oiartzunen arroak 72 Km<sup>2</sup>-ko guztizko azalera du.

LAParen antolamendu-eremuan guztiz barne hartutako erkidego barruko arroa dugu.

Bere adar nagusia Sarobe ibaia da, 18 Km<sup>2</sup>-ko arroa duena.

Oiartzun ibaiak 10 Km-ko garapena du Pasaiaiko badian itsasoratzen denetik Aiako Harriko zonako ibaibide garaieraino.

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

Oiartzun ibaiaren arroaren ibaibidea ondoren adierazitako ibaitarteetan bana genezake ikuspegi hidraulikoaren arabera:

II kategoriako ibaitarteak ( $50 < A \leq 100 \text{ Km}^2$ )

Oiartzun, 0 (Pasaiaiko portuko bokalea, portu-zerbitzuko zubiaren azpian kokatutako itsasadarraren puntua) - 3,4 Km (Saroberekiko elkargunea).

I kategoriako ibaitarteak ( $10 < A \leq 50 \text{ Km}^2$ )

Oiartzun, 3,4 - 10,2 Km (Arditurri errekarrekiko elkargunea)  
Sarobe, 0 (Oiartzuneko elkargunea) - 1,2 Km (Xenpelar errekarrekiko elkargunea)

0 kategoriako ibaitarteak ( $1 < A \leq 10 \text{ Km}^2$ )

LAParen informazio grafikoan adierazitako erreken multzoari dagozkie, berariazko identifikaziorik gabe.

00 kategoriako ibaitarteak ( $A \leq 1 \text{ Km}^2$ )

LAParen dokumentazio grafikoan barne hartzen ez diren gainerako erreka txiki edo aldizkako isurketen ibaibideei dagozkie.

Erretena txiki batzuk estalita daude beren ibilbidearen hainbat zati handitan. Asko urbanizatutako zonak dira, Pontika eta Lintzirin erretenak kasu. Horien hustuketa-baldintzak aztertu egin beharko lirateke beren arroen goi-ibarretan hirigintza-garapen berriak planteatu baino lehen.

**Urumea ibaiaren arroa**

Urumearen arroak  $278 \text{ Km}^2$ -ko guztizko azalera du.

Hainbat erkidegori dagokion arroa da bere lurraldearen zati handi bat,  $175 \text{ Km}^2$  gutxi gorabehera, Nafarroari dagokio eta. Ibaia Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko muga da (23 PK - 31 PK).

Bere adar nagusiak eta horiei dagozkien azpiarroak honakoak dira: Urruzuno ( $13 \text{ Km}^2$ ) ibaia ezkerraldeko ertzean eta Añarbe ibaia ( $65 \text{ Km}^2$ ) eskuinaldeko ertzean.

Añarbeko urtegiak eta Artikutzako urtegi txikiak, Nafarroako lurraldean dagoenak,

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

Donostialdeko ur-horniduraren sistema osatzen dute.

Urumea ibaiak, LAParen barruan, 31 Km-ko luzerako luzekako garapena du itsasoko bokaletik Nafarroarekiko mugara, Añarberekin elkartzen den lekura.

Urumea ibaiaren arroaren ibaibidea ondoren adierazitako ibaitarteetan bana genezake ikuspegi hidraulikoaren arabera:

IV kategoriako ibaitarteak ( $200 < A \leq 400 \text{ Km}^2$ )

Urumea, 0 (itsasoko bokalea, Kursaal zubitik 150 metro behera) - 21,5 Km (Urruzunorekiko elkargunea)

III kategoriako ibaitarteak ( $100 < A \leq 200 \text{ Km}^2$ )

Urumea, 21,5 - 31,4 Km (Añarberekiko elkargunea)

II kategoriako ibaitarteak ( $50 < A \leq 100 \text{ Km}^2$ )

Añarbe, 0 (Urumearekiko elkargunea) - Añarbeko urtegia.

I kategoriako ibaitarteak ( $10 < A \leq 50 \text{ Km}^2$ )

Urruzuno, 0 (Urumearekiko elkargunea) - 2,0 Km

0 kategoriako ibaitarteak ( $1 < A \leq 10 \text{ Km}^2$ )

LAParen informazio grafikoan adierazitako erreken multzoari dagozkio, berariazko identifikaziorik gabe.

00 kategoriako ibaitarteak ( $A \leq 1 \text{ Km}^2$ )

LAParen dokumentazio grafikoan barne hartzen ez diren gainerako erreka txiki edo aldizkako isurketen ibaibideei dagozkie.

Iparra III Plan Hidrologikoan uholdeak prebenitzeko eskuhartzeak egiteko lehentasunezko zona gisa Urumea ibaia, Donostiatik Hernanira, hartzen da kontuan.

Erretena txiki batzuk estalita daude beren ibilbideen hainbat zati handitan. Hori gertatzen da oso urbanizatuta dauden zonen kasuan, Mirakruz, Morlans, Anoeta, 27 poligonoa, Astigarraga eta Hernaniren kasuan esate baterako. Horietan beren hustuketa-baldintzak aztertu beharko lirateke beren arroen goi-ibarretan hirigintza-garapen berriak planteatu aurretik.



### **Añorga ibaiaren arroa**

Añorgaren arroak 18 Km<sup>2</sup>-ko guztizko azalera du.

LAParen antolamendu-eremuan guztiz barne hartutako erkidego barruko itsasertzeko arro txikia dugu.

Bere garapeneko 5 Km ia erabat estalita daude N-1 errepidearen eta hiri-inguruko garapenen azpian.

Kontxako badian itsasoratzeko zuen jatorrizko ubidea Igeldo mendiaren azpitik doan tunel batek ordeztu du.

Estaldura-sistemaren, hainbat puntutan estugune handiak dituenaren, dimentsioak nahikoak ez direla eta, Añorga ibaiaren arroak drenaje- eta uholde-arazo larria du oso urbanizatuta dagoen zona batean.

Añorga ibaiaren arroaren ibaibidea ondoren adierazitako ibaitarteetan bana genezake ikuspegi hidraulikoaren arabera:

#### **I kategoriako ibaitarteak** ( $10 < A \leq 50 \text{ Km}^2$ )

Añorga, 0 (Tximistarriko kalako bokalea) - 2,0 Km (Ibaeta erretenarekiko elkargunea).

#### **0 kategoriako ibaitarteak** ( $1 < A \leq 10 \text{ Km}^2$ )

LAParen informazio grafikoan adierazitako erreken multzoari dagozkio, berariazko identifikaziorik gabe.

#### **00 kategoriako ibaitarteak** ( $A \leq 1 \text{ Km}^2$ )

LAParen dokumentazio grafikoan barne hartzen ez diren gainerako erreka txiki edo aldizkako isurketen ibaibideei dagozkie.

## 2.3. HIRIGINTZA-OSAGAIAREN ALDERDIAK

### **Bidasoa ibaiaren arroa**

LAPean barne hartutako Bidasoa ibaiaren arroaren zati osoa Irun udalerriri dagokio.

Ertzak antolatzeko mapetan, hirigintza-osagaiaren araberakoetan, udaleko hirigintza-plangintzari buruzko honako erreferentzia hartu da barne:

- Irungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.  
Hasierako onarpenaren agiria: 96.06.15.

### **Jaizubia ibaiaren arroa**

Jaizubia ibaiaren arroak Hondarribia, Irun eta Oiartzun udalerrien zati bana hartzen du.

Ertzak antolatzeko mapetan, hirigintza-osagaiaren araberakoetan, udaleko hirigintza-plangintzari buruzko honako erreferentziak hartu dira barne:

- Hondarribiko Arau Subsidiarioak.  
Behin betiko onarpenaren agiria: 96.12.24
- Irungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.  
Hasierako onarpenaren agiria: 96.06.15
- Oiartzungo Arau Subsidiarioak.  
Behin betiko onarpenaren agiria: 96.06.27

### **Oiartzun ibaiaren arroa**

Oiartzun ibaiaren arroaren eremua Lezo, Oiartzun eta Erreterian eta Donostiako zati txiki batean barrena doa.

Ertzak antolatzeko mapetan, hirigintza-osagaiaren araberakoetan, udaleko

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

hirigintza-plangintzari buruzko honako erreferentziak hartu dira barne:

- Lezoko Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 87.05.27
- Oiartzungo Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 96.06.27
- Errenteriako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 92.03.31.
- Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.  
Behin betiko onarpenaren agiria: 95.11.27

**Urumea ibaiaren arroa**

Urumea ibaiaren arroaren eremua Donostia, Astigarraga, Hernani, Urnieta, Errenteria, Oiartzun udalerrietan eta Andoaingo zati txiki batean barrena hedatzen da.

Ertzak antolatzeko mapetan, hirigintza-osagaiaren araberakoetan, udaleko hirigintza-plangintzari buruzko honako erreferentziak hartu dira barne:

- Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra  
Behin betiko onarpenaren agiria: 95.11.27
- Astigarragako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 97.06.24
- Hernaniko Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 95.06.27
- Urnietako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 91.09.16
- Errenteriako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 92.03.31
- Oiartzungo Arau Subsidiarioak

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

Behin betiko onarpenaren agiria: 96.06.27

- Andoaingo Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 95.12.5

Hirigintza-alderdi garrantzitsuen artean kultur interes berezia duten bi zubi daudela adierazi dugu dokumentazio grafikoan:

- Ergobiako zuba, Urumea ibiaren 9,3 Km-aren gainekoa (Astigarraga)  
B.7. Ergobia. Santiago bideko monumentu-multzo gisa kalifikatutakoa.
- Fagollagako zuba, Urumea ibaiaren 18,2 Km-aren gainekoa (Hernani)  
C.27. Fagollaga. Santiago bideko monumentu-multzo gisa kalifikatutakoa.

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

**Añorga ibaiaren arroa**

Añorga ibaiaren arroaren eremua Donostia, Hernani eta Usurbil udalerrietan barrena hedatzen da.

Ertzak antolatzeko mapetan, hirigintza-osagaiaren araberakoetan, udaleko hirigintza-plangintzari buruzko honako erreferentziak hartu dira barne:

- Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra  
Behin betiko onarpenaren agiria: 87.05.27
  
- Hernaniko Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 95.06.27
  
- Usurbilgo Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 92.07.30

### **3. ORIA IBAIAREN ARROA**

Oria ibaiaren arroaren mapa orokor bat egin dugu, B.1.2. izenekoa, 1/75.000 eskalara, eta bertan honako elementu hauek adierazi ditugu:

- Km<sup>2</sup> 1 baino gehiagoko adar-arroa duten ibaibide guztien sare hidrografikoa.
- 10 Km<sup>2</sup> baino gehiagoko adar-arroa duten ibaibide guztien izenak eta puntu kilometrikoak eta sare hidrografikoaren punturik esanguratsuenetako adar-arroen azalera.
- Arro nagusien, 10 km<sup>2</sup> baino gehiagoko azpiarroen eta gainerako azpiarro txikien mugaketa.
- Parke natural edo biotopo babestu deklaraturako areak.
- "Natura 2000" sarean barne hartutako lekuak.
- Interes naturalistikoko areak.
- Udal-plangintzan hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako eremuak.
- LAParen aplikazio-eremuaren muga, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren muga eta udalerrien mugak.

### 3.1. INGURUGIRO-OSAGAIAREN ALDERDIAK

#### Oria ibaiaren arroa

Goi-ibarretik, Otzaurte ingurutik, bertatik belardien nagusitasunak Orian erriberako basoa garatzea baldintzatzen du. Haltzadiak zona honetan tarte etenak, koniferoen (bereziki alertzeen eta intsinis pinuen) birlandatzeak eta belardiek, ubidearen ertzera iristen direnak, bereizitakoak, osatzen dituzte. Haranaren hondoan (belardiak) eta hegaletan (basoetako birlandatzeak) erabilera horiek nagusitzeak galeria-basoaren jarraitasuna mugatzen du.

Beasain herrigunetik aurrera egoerak nabarmen egiten du txarrera. Aipatutako erabilerak industria-poligonoek, herriguneez, bide-azpiegiturek eta abarrek ordezkatzeko dituzte, gisa horretan ibaiaren ezaugarri naturalak erabat aldatu dituen hiri-esparru jarraia sortuz. Hirigintzarako eta azpiegituretarako erabiltzen ez diren zona bakanetan belardiak dira nagusi (adibidez Alegia eta Ikaztegieta artean). Bada, erriberako basoa bananondoak nagusi dituzten ibaitarte bakarren batzuetara murriztuta dago.

Andoaindik ibaibidean behera ibaiaren egoera zertxobait hobea da. Ezkerraldeko ertzean batez ere erriberako basoak zuhaitzez beteriko nolabaiteko jarraitasuna duten tarteak ditu. Jarraitasun hori zabaldu egiten da Oriaren itxieran. Horietan haltzekin batera beste espezie batzuk ere agertzen dira, bananondoak, haritz amerikarrak, makalak beste hainbat artean.

Lasartetik (inguru honetan ibaia oso degradatuta dago) bokaleraino zuhaitzez (batez ere bananondoez) beteriko zatiak eta belardiak eta landatzeak, ohikoen diren erabilerak, tartekatzen dira. Motondotik aurrera bi aldeetako ertzak ruderalizatuta daude. Azpimarratzekoak dira ezkerraldeko ertzean, Motondo izeneko zonaren inguruan eta Beroerreka, Donparnasa eta Olabarrieta erreken elkargunean dauden padura-hondar batzuk.

Oriaren adar nagusien artean komenigarria da Leizaran aipatzea, bere artapen-maila dela eta. Ia bere ibilbide guztian zehar erriberako basoari (haltzadiari) eusten dio. Gipuzkoan duen arroa ia erabat despopulatua eta lur malkartsukoa izaki, ardatz nagusiari aurkajartzen zaio. Bere bokalean, Andoain inguruan, bakarrik daude aldarazita bere ertzak.

Abaloz erretena ere azpimarragarria da bere erriberako basoak duen

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

artapen-egoera dela eta. Gainera, erreten honek jarraitasun ona du bi ertzetako hegaletako hariztiekin. Azkenik, Agauntza goi-ibarraren balio naturalistikoa ere aipa genezake, izan ere, bertan haltzadi menditarra da nagusi Aralar mendizerrako pagadietako lotura estuan.

Beste muturrean, aintzakotzat hartu behar dugu oso aldarazita dauden beste ibaitarte batzuk ere badirela: Araxesez beheko zatiak, Berastegi, Estanda, eta abar. Ondoen kontserbatutakoan eta egoera kaxkarragoan dauden hauen artean erdi-mailako egoeran dauden beste hainbat ditugu. Horiek guztiak aipatzeak luzeegi joko luke.

Oria ibaiko arrain-faunaren egoera nabarmen hobetu da azken urteetan uraren kalitatea zertxobait hobetzeari esker. Horrela, orain gutxi arte bere ibilbidearen zatirik handienean arrainei dagokienean antzua zen ibaiak karpenteren espezieak buru dituen komunitatea du egun. Ibai-amurraina ia ibaiaren ibilbide guztian zehar ikus daiteke. Alabaina, horren populazioak ez dira oso ugariak eta ez dira ardatzean ugaltzen. Azken urteetan ibaibidearen azken zatiko itsas amuarrainen aipamenak izan dira. Gipuzkoako Foru Aldundia arroan izokin atlantiarra berriz sartzeko plana gauzatzen ari da eta horren lehen emaitzak orain ari dira lortzen. Ibaiaren zatirik handienaren ertzen degradazio handia dela eta gainerako ornodunen fauna-komunitatea oso sinplifikatuta dago eta horren ondorioz, ingurunearen kalitateari dagokionean exigenteenak diren espezieak falta dira. Paduren inguruan interes handiko enklabeak daude. Horietan hegoaldeko zuhaitz-igela eta baso-igel gorria (*Rana temporaria*), area honetan itsasoaren mailan ugaltzen den espezie menditarra, aurki ditzakegu.

Arrain-faunaren egoera oso bestelakoa da adar batzuetan eta besteetan. Batzuek egoera onean dauden komunitateak eta arrain ugariak badituzte ere, beste batzuetan ez dago arrain-faunarik edo oso egoera txarrean dagoen fauna dute. Bi mutur horien artean erdi-mailako egoerak ere badira ibaiaren egoera fisikoari buruzko atalean jada adierazi dugun gisan. Ondoen egituratutako arrain-komunitateak dituzten ibaien artean Leizaran, Araxes (Txaramatik gora), Berastegi (goiko ibaitarte) eta entitate gutxiagoko menpeko beste hainbat aipa ditzakegu. Arrainen ikuspegitik egoera txarrena dutenak Estanda, Araxesen beheko ibaitarte, Amezketaren zati handi samarra eta Zelairen azken zatia dira. Beste ornodun-espezie batzuen presentzia dela eta oso interesgarriak diren beste zenbait ibaitarte ere badira. Nabarmentzekoa da desman piriniarraren presentzia Leizaran eta Agauntza ibaietan. Abaloz erretenean ur-ipurtatsaren aipamenak izan dira azken aldiak. Azkenik, uhandre piriniarraren (*Euproctus asper*) populazioak badira Leizaran ibaiaren arroan.

Oria ibaiaren kalitatea ona da Beasain -Ordizia herriguneko hiri- eta



1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

industria-isurkinak jasotzen dituen arte. Puntu horretan ditu baliorik txarrenak eta ondoren kalitatea hobetu egiten da, nahiz eta maila egokirik ez lortu. Erdialdeko behe-tarte guztia (Tolosa, Andoain eta Lasarte ingurua) oso eutrofizatuta dago eta egoera hori areagotu egiten da ertzen, ibaitarte askotan zuhaitz-landaredirik ia ez dutenen, egoeraren ondorioz. Arro honetan uraren kalitatea hobetu egin da azken urteetan paper-enpresa gehienak, aurreko hamarkadetan ibaietan poluzio handia eragiten zutenak, itxi egin direlako. Horrek, zuzenketa-neurriak hartzeak eta erregulazio-jarduketak egiteak (Lareo eta Arriarango urtegiak) egun ibaiaren erdialdeko behe-tartean uraren kalitatea arrazoizkoa izatea ahalbidetu dute.

Oro har adarretan uraren kalitatea ardatz nagusikoa baino handiagoa da, horietako gehienek ez baitute isurketa handirik edo uraren kalitatea nabarmen aldarazten duten erabilerarik izaten. Dena dela, beren kalitate txarra dela eta azpimarratzekoak dira ondoren adierazitako menpekoen beheko ibaitarteak: Estanda, Amezketza, Araxes eta Zelai (hau onera etortzen ari da paper-fabrikak araztegiak eraikitzen ari direlako). Horietako batzuetan poluzio-egoerak kezkarriak dira.

Oriaren arroak honako naturgune hauek ditu:

- Aralarko Parke Naturala
- Leizarango Biotopoa
- Pagoetako Parke Naturala
- Aizkorriko Parke Naturala

Halaber, Oria arroaren barruan dugu ES 2120019 lekua, Ernio-Gazume, "Natura 2000" sarean barne hartutakoa.

Oria ibaiaren arroaren barruan interes naturalistikoko zona gisa katalogatutako honako hauek ere baditugu:

- (38) Oria ibaiaren itsasadarreko paduraguneak
- (39) Aginagako urtegia
- (43) Atxulondo - Abaloz
- (50) Murumendi
- (53) Araxes ibaiaren harana, Jazkugañe eta Basabe

Beren ertzak berreskuratzeko premia duten ibaitarte gisa honako hauek proposatu ditugu:

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

Oria ibaian:

- Motondo inguruko padura (degradatuen dauden padura-zonak berreskuratzea)
- Brunet inguruko ibaitartea (Lasarte udalerria, landu gabeko ubiderapena)
- A-15 autobiaaren obren eragina duen tartea (25 PK)
- Billabonatik ibaibidean gora (29 PK, ruderalizatutako zona)
- Alegiatik ibaibidean behera (39.5 PK, ruderalizatutako zona)
- Ikaztegietatik ibaibidean behera (42.5 PK, ruderalizatutako zona)
- Legorretatik ibaibidean behera (47 PK, ruderalizatutako zona)
- Beasain (56 PK eta 57 PK artean, ruderalizatutako zona)

Adarretan:

- Arriaran ibaia (arbel-harrobia, 2 PK)
- Estanda ibaia (zabortegia menpeko erreka batean 7 PKren inguruan)
- Araxes ibaia (azken zatiaren ubiderapena, bokaletik Amaro zuzora)
- Jazkugañe erretena (Altzoko harrobia)

### 3.2. HIDRAULIKA-OSAGAIAREN ALDERDIAK

#### Oria ibaiaren arroa

Oria ibaiaren arroak 889 Km<sup>2</sup>-ko guztizko azalera du.

Hainbat erkidegori dagokion arroa dugu, bere eremuaren zati bat Nafarroan baitago.

Bere adar nagusiak eta horien azpiarroak honako hauek dira:

a) Eskuinaldeko ertzean:

- Leizaran (122 Km<sup>2</sup>)
- Zelai (34 Km<sup>2</sup>)
- Araxes (106 Km<sup>2</sup>)
- Basabe (12 Km<sup>2</sup>)
- Amezketa (60 Km<sup>2</sup>)
- Bedaio (17 Km<sup>2</sup>)
- Ibiur (12 Km<sup>2</sup>)
- Amundarain (40 Km<sup>2</sup>)
- Urtxubi (14 Km<sup>2</sup>)
- Agauntza (84 Km<sup>2</sup>)
- Ursuaran (20 Km<sup>2</sup>)

b) Ezkerraldeko ertzean:

- Artxodi (12 Km<sup>2</sup>)
- Santio (27 Km<sup>2</sup>)
- Asteasu (29 Km<sup>2</sup>)
- Albiztur (28 Km<sup>2</sup>)
- Berostegi (11 Km<sup>2</sup>)
- Estanda (55 Km<sup>2</sup>)
- Arriaran (12 Km<sup>2</sup>)
- Sta. Lutzi (24 Km<sup>2</sup>)
- Mutiloa (16 Km<sup>2</sup>)

Oria ibaiaren garapenak 72 Km ditu bokaletik Zegamaraino eta desnibela 300 metrokoa da.

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

Goi-ibarretan Lareo eta Arriarango urtegiak eraiki dira eta jada aurreikusita dago Ibiurgo urtegia.

Oria ibaiaren arroaren ibaibidea ondoren adierazitako ibaitarteetan bana genezake ikuspegi hidraulikoaren arabera:

VI kategoriako ibaitarteak ( $600 \text{ Km}^2 < A$ )

Oria, 0 (A-8 autopistaren bidezubiaren azpian dagoen itsasadarraren puntua) - 28,1 Km (Asteasurekiko elkargunea)

V kategoriako ibaitarteak ( $400 < A \leq 600 \text{ Km}^2$ )

Oria, 28,1 - 37,5 Km (Albisturrekiko elkargunea)

IV kategoriako ibaitarteak ( $200 < A \leq 400 \text{ Km}^2$ )

Oria, 37,5 - 52,7 Km (Amundarainekiko elkargunea)

III kategoriako ibaitarteak ( $100 < A \leq 200 \text{ Km}^2$ )

Oria, 52,8 - 58,1 Km (Estandarekiko elkargunea)

Leizaran, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 6,9 Km (Onlloko errekarrekiko elkargunea).

Araxes, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 5,0 Km (Gaztelurekiko elkargunea).

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

II kategoriako ibaitarteak ( $50 < A \leq 100 \text{ Km}^2$ )

Oria, 58,1 - 63,1 Km (Mutiloarekiko elkargunea)  
Leizaran, 6,9 - 30,2 (Nafarroarekiko muga)  
Araxes, 5,00 (Nafarroarekiko muga) - 12,4  
Amezketeta, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 2,6 Km (Intzaleiko errekarrekiko elkargunea)  
Agauntza, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 9,6 Km (Lauzti errekarrekiko elkargunea)  
Estanda, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 2,1 Km (Arriaranekiko elkargunea)

I kategoriako ibaitarteak ( $10 < A \leq 50 \text{ Km}^2$ )

Oria, 63,1 - 72,2 Km  
Artxodi, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 1,2 Km (Manterola errekarrekiko elkargunea)  
Santio, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 5,2 Km (Aiako San Pedro)  
Asteasu, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 5,0 Km  
Zelai, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 10,0 Km  
Basabe, 0 (Araxesekiko elkargunea) - 0,8 Km (Errotaran errekarrekiko elkargunea)  
Albiztur, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 5,0 Km  
Amezketeta, 2,6 - 8,5 Km  
Bedaio, 0 (Amezketarekiko elkargunea) - 3,6 Km (Inpernu errekarrekiko elkargunea)  
Berostegi, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 0,6 Km (Bekoetxeko errekarrekiko elkargunea)  
Amundarain, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 8,2  
Urtxubi, 0 (Amundarainekiko elkargunea) - 2,0 Km  
Agauntza, 9,6 - 21,0 Km (Akaitz errekarrekiko elkargunea)  
Estanda, 2,1 - 7,2 Km (Gesaltxo errekarrekiko elkargunea)  
Arriaran, 0 (Estandarekiko elkargunea) - Arriaran urtegia  
Sta. Lutzi, 0 (Estandarekiko elkargunea) - 5,0 Km (Urkiola errekarrekiko elkargunea)  
Ursuaran, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 6,2 Km (Atxu errekarrekiko elkargunea)  
Mutiloa, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 2,2 Km (Zerain errekarrekiko elkargunea)

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

0 kategoriako ibaitarteak ( $1 < A \leq 10 \text{ Km}^2$ )

LAParen informazio grafikoan adierazitako erreken multzoari dagozkio, berariazko identifikaziorik gabe.

00 kategoriako ibaitarteak ( $A \leq 1 \text{ Km}^2$ )

LAParen dokumentazio grafikoan barne hartzen ez diren gainerako erreka txiki edo aldizkako isurketen ibaibideei dagozkie.

Iparra III Plan Hidrologikoan Oria ibaian uholdeak prebenitzeko eskuhartzeak egiteko lehentasunezko zona gisa hartu da barne Lasarte eta Beasain arteko zatia.

Epe luzera arroaren ubide nagusietan dauden estaldurak pixkanaka kentzeko politika proposatzen dugu:

- Oria. 57,3 Km. (Indar) ( $146 \text{ Km}^2$ )
- Araxes. 1,0 Km. (Araxes paper-fabrika) ( $105 \text{ Km}^2$ )
- Oria. 59,0 Km. (Aristrain) ( $89 \text{ Km}^2$ )
- Sta. Lutzi. 1,0 Km. (Letag) ( $23 \text{ Km}^2$ )
- Amezketa. 6,8 Km. (Paper-fabrika) ( $19 \text{ Km}^2$ )

Bestalde, hiri-zonatan estalitako erretena txiki ugari izatearen ondorioz sortutako arazo hidraulikoak sistematikoki berrikustea ere proposatzen da, batez ere arroen goi-ibarretan hirigintza-garapen berriak planteatu baino lehen.

### 3.3. HIRIGINTZA-OSAGAIAREN ALDERDIAK

#### Oria ibaiaren arroa

Oria ibaiaren arroaren eremua ondoren adierazitako udalerrietan barrena hedatzen da: Aia, Zarautz, Orio, Usurbil, Lasarte-Oria, Donostia, Hernani, Urnieta, Andoain, Aduna, Zizurkil, Asteasu, Larraul, Errezil, Alkiza, Anoeta, Billabona, Irura, Hernialde, Tolosa, Ibarra, Belauntza, Berrobi, Elduain, Berastegi, Altzo, Leaburu, Gaztelu, Lizartza, Oresa, Bidegoian, Beizama, Albiztur, Alegia, Amezketa, Ikaztegieta, Orendain, Baliarrain, Abaltzisketa, Legorreta, Itsasondo, Altzaga, Arama, Ordizia, Zaldibia, Beasain, Lazkao, Gainza, Ataun, Olaberria, Idiazabal, Segura, Zegama, Zerain, Legazpi, Mutiloa, Ormaiztegi, Gabiria, Ezkio-Itsaso eta Zumarragan barrena.

Ertzak antolatzeko mapetan, hirigintza-osagaiaren arabera, udaleko hirigintza-plangintzari buruzko honako erreferentziak hartu dira barne:

- Abaltzisketako Arau Subsidiarioak  
AASSen aurrelaburpena: 96.04.24
- Adunako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 91.05.20
- Aiako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 93.11.5
- Albizturgo Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 91.05.17
- Alegiako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 94.03.15
- Alkizako Arau Subsidiarioak  
Behin-behineko onarpenaren agiria: 95.07.12
- Altzagako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 83.01.31
- Altzoko arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 91.10.9

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

- Amezketako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 85.09.21
  
- Andoaingo Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 95.12.5
  
- Anoetako Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 96.12.17
  
- Aramako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 92.06.19
  
- Asteasuko Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 94.11.30
  
- Ataungo Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 93.05.3
  
- Baliarraingo Arau Subsidiarioak  
Hasierako onarpenaren agiria: 96.07.17
  
- Beasaingo Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 95.04.25
  
- Beizamako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 90.03.23
  
- Belauntzako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 96.01.25
  
- Berastegiko Arau Subsidiarioak  
AASSen aurrelaburpena: 96.07.11
  
- Berrobiko Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 93.02.4
  
- Bidegoiango Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 96.10.21



1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

- Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra  
Behin betiko onarpenaren agiria: 95.11.27
- Elduaingo Arau Subsidiarioak  
AASSen aurrelaburpena: 88.08.2
- Errezilgo Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 96.12.13
- Ezkio-Itsasoko Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 89.10.25
- Gabiriako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 92.04.30
- Gaintzako Arau Subsidiarioak  
AASSen aurrelaburpena: 95.03.6
- Gazteluko Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 94.12.2
- Hernaniko Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 95.06.27
- Hernialdeko Hiri Lurzoruaren Mugaketa  
Behin betiko onarpenaren agiria: 84.11.13
- Ibarraiko Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 91.02.22
- Idiazabalgo Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 87.07.22
- Ikaztegiako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 96.10.2
- Irurako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 88.01.19
- Itsasondoko Arau Subsidiarioak

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

Behin betiko onarpenaren agiria: 90.08.23

- Larraulgo Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 89.05.17
- Lasarte-Oriako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 90.08.27
- Lazkaoko Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 91.10.28
- Leaburuko Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 94.12.2
- Legazpiko Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 87.07.22
- Legorretako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 89.07.5
- Lizartzako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 88.06.29
- Mutiloako Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 92.04.2
- Olaberriako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 87.10.2
- Ordiziako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 87.11.20
- Orendaingo Arau Subsidiarioak  
Galarazpena duen agiria: 93.08.19
- Orexako Arau Subsidiarioak  
AASSen aurrelaburpena: 94.04.7
- Orioko Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 90.04.30

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

- Ormaiztegiko Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 96.10.3
- Segurako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 94.05.16
- Tolosako Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 93.08.3
- Urnietako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 91.09.16
- Usurbilgo Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 92.07.30
- Billabonako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 92.10.15
- Zaldibiako Arau Subsidiarioak  
Hasierako onarpenaren agiria: 95.03.16
- Zarauzko Arau Subsidiarioak  
Hasierako onarpenaren agiria: 95.09.13
- Zegamako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 92.11.10
- Zeraingo Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 90.04.12
- Zizurkilgo Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 91.06.14
- Zumarragako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 94.05.17

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

Hirigintza-alderdi adierazgarri gisa, ibaien ertzetan dauden hirigune historiko batzuen kokagunea adierazi dugu dokumentazio grafikoan:

- Orioko hirigune historikoa. Oria ibaia. Eskuinaldeko ertza, 1,2 - 1,4 Km. 94ko irailaren 25ean monumentu-multzo deklaratu.
- Tolosako hirigune historikoa. Oria ibaia. Ezkerraldeko ertza, 34,6 -35,0 Km. 1995eko abenduaren 18an monumentu-multzo deklaratu.
- Alegiako hirigune historikoa. Oria ibaia. Ezkerraldeko ertza, 40,6 - 41,0 Km.

Horrezaz gain Oria ibaiaren arroan kultur interesa duten honako zubi hauek daudela adierazi da:

- Zorrozako zubia, Oria ibaiaren gainekoa. 12,8 Km (Usurbil). A.4. Zorroza.
- Zubimusu zubia, Oria ibaiaren gainekoa. 28,2 Km (Billabona-Zizurkil). B.20. Zubimusu. Santiago bideko monumentu-multzo gisa kalifikatutakoa.
- Nafarroako zubia, Oria ibaiaren gainekoa. 35,0 Km (Tolosa). B.12. Nafarroa. Santiago bideko monumentu-multzo gisa kalifikatutakoa.
- Zubitxo zubia, Zelai ibaiaren gainekoa. 1,1 Km (Ibarra). B.21. Zubitxo.
- Zubizaharra zubia, Oria ibaiaren gainekoa. 40,8 Km (Alegia). B.5. Zubizaharra. Santiago bideko monumentu-multzo gisa kalifikatutakoa.
- Benta Txikiko zubia, Oria ibaiaren gainekoa. 45,2 Km (Ikaztegieta). B.4. Benta Txiki.
- Zubizaharra zubia, Oria ibaiaren gainekoa. 48,3 Km (Legorreta). C.66. Zubizaharra. Santiago bideko monumentu-multzo gisa kalifikatutakoa.

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

- Ibares zubia, Oria ibaiaren gainekoa. 52,5 Km (Ordizia-Arama).  
D.1. Ibares. Santiago bideko monumentu-multzo gisa kalifikatutakoa.
  
- Yarza zubia, Oria ibaiaren gainekoa. 57,3 Km (Beasain).  
B.18. Yarza.
  
- Zubiaundi zubia, Oria ibaiaren gainekoa. 64,9 Km (Segura).  
D.2. Zubiaundi. Santiago bideko monumentu-multzo gisa kalifikatutakoa.
  
- Zubizaharra zubia, Leizaran ibaiaren gainekoa. 6,8 Km (Elduain).  
B.23. Zubizaharra.
  
- Urtoko zubia, Leizaran ibaiaren gainekoa. 30,3 Km (Berastegi).  
B.17. Urto.

Azkenik, ibaiertz batean kokatutako interes kultureko elementu gisa adierazi dugu Agorregi burdinola, Monterola eta Iturriko erretenen elkargunean, Artxodi ibaiaren arroaren goi-ibarrean, dagoena.

#### **4. UROLA, DEBA, INURRITZA, NARRONDO ETA SATURRARAN IBAIEN ARROAK**

Urola, Deba, Inurritza, Narrondo eta Saturraran ibaien arroen mapa orokor bat egin dugu, B.1.3. izenekoa, 1/75.000 eskalara, eta bertan honako elementu hauek adierazi ditugu:

- Km<sup>2</sup> 1 baino gehiagoko adar-arroa duten ibaibide guztien sare hidrografikoa.
- 10 Km<sup>2</sup> baino gehiagoko adar-arroa duten ibaibide guztien izenak eta puntu kilometrikoak eta sare hidrografikoaren punturik esanguratsuenetako adar-arroen azalera.
- Arro nagusien, 10 km<sup>2</sup> baino gehiagoko azpiarroen eta gainerako azpiarro txikien mugaketa.
- Parke natural edo biotopo babestu deklaraturako areak.
- "Natura 2000" sarean barne hartutako lekuak.
- Interes naturalistikoko areak.
- Udal-plangintzan hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako eremuak.
- LAParen aplikazio-eremuaren muga, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren muga eta udalerrien mugak.

## 4.1. INGURUGIRO-OSAGAIAREN ALDERDIAK

### Urola ibaiaren arroa

Ubide nagusiaren goi-ibarrean erriberako basoaren, haltzadi menditarraren, presentzia erreken ertzeko zerrenda estu batera mugatzen duten koniferoen landatzeak dira nagusi. Zona batzuetan, goi-ibarretako adar diren erretenetan, haltzadiak lotura ona du Aizkorriko mendizerrako iparraldeko isurialdeko pagadi eta hariztiekin.

Brinkolatik ibaibidean behera belardi eta labore-lur atlantikoak dira haranetako hondoetako erabilera nagusiak eta ia ibaiaren ertzearaino iristen dira. Horren ondorioz, haltzadia oso ibaitarte txikietara, ibaiaren ezpondara mugatutako zuhaiska-garapenen ilara etenetara, mugatuta egongo da.

Legazpitik aurrera ruderalizatutako ertzak hasiko dira nagusitzen, ibaia Legazpi, Zumarraga, Urretxu herriguneetatik eta industria-poligonoetatik pasatzearen ondorioz, izan ere, horien eraginez desagertu egin da erriberako basoa. Urretxutik ibaibidean behera, Azkoitira arte, C-6317 errepidea ia ibaiaren ezker aldeko ertzaren ondo-ondotik doa. Eskuinaldeko ertzean, berriz, haltzadiz beteriko tartekak eta horien jarraitasuna eteten duten belardiak edo baso-landatzeak tartekatzen dira.

Azkoitia eta Azpeititik pasatzerakoan urbazterreko landarediaren degradazioa areagotu egiten da eta hemendik aurrera ia erabat desagertu da jatorrizko erriberako basoa. C-6317 errepideaz gain, Urolako trenbidea ere ibaitik hurbil igarotzen da hainbat ibaitartetan.

Azpeitia eta Zestoa artean bananondoen landatzeak dira nagusi. Landatzeen tarte luze horiekin belardiak tartekatzen dira.

Zestoatik ibaian behera dute bananondoen ilarek beren garapenik handiena eta Iraeta eta Oikia artean horien jarraitasuna ona da.

Oikiako industria-poligonotik aurrera degradatutako ertzak ikus daitezke gehienbat (industria-poligonoak, Gorostiagako betelana, Zumaia eta Zestoa arteko errepidea eta abar).

Azkeneko ibaiartean, baduatik ibaian behera, paduraren hondar batzuk ikus daitezke. Horiek eta Artadi izenez ezaguna den artadiak interes naturalistiko eta

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

paisajistiko nabaria ematen diote zona honi.

Urolaren arroaren gainerako zatiari dagokionean azpimarratzeko modukoak dira Ibai-Eder erretenaren goi-ibarra, urtegitik gora dagoena eta Murumendiren iparmendebaldeko isurialdean pagadi eta harizti azpimarragarriak dituena, Errezil ibaiaren erdialdeko zona batzuetako tartekak eta Alzolaras erretena, haltzadiaren eta hariztien, hedadura esangarria dutenen eta erretena hori drenatzen duten hegaletan daudenen, arteko jarraitasun ona duena.

Goi-ibarreko fauna-komunitateak arrain-espezie bereziak ditu: amuarrain arrunta, mazkarra eta ezkailua. Bertan falta den espezie bakarra aingira dugu. Legazpitik aurrera arrain-komunitatea nabarmen txirotzen da. Ia desagertu egiten dira arrainak beheko ibaitartera arte. Horri dagokionez honako zazpi espezieak nabarmen ditzakegu: amuarraina, barboa, loina, ezkailua, urre-arraina, mazkarra eta aingira.

Urolaren arroaz ari garela, jada aipatu dugun arrain-faunaz gain, azpimarratzekoa da Murumendiren erretenen, Ibai-Erderren adar direnen, multzoa, ornodunen komunitate aberatsa duena. Horien artean arrainen eta anfibioen komunitateaz gain nabarmentzekoak dira martin arrantzalearen eta ur-zozoaren presentzia, kalitatearen adierazle gisa.

Errezil erreka ere azpimarratzekoa da duen kontserbazio-interesa dela eta, baina batez ere Alzolaras erretena bereiziko dugu, ondo egituratutako arrain-komunitatea eta martin arrantzalearen presentzia baititu.

Urola ibaiko uraren kalitateak luzekako bilakaera nabarmena du. Goi-ibarretan uraren kalitatea handia da, arrain-fauna ugaria da eta egoera orokorra egokia da. Legazpi, Zumarraga eta Urretxuko isurketen eraginez poluzio-mailak izugarri igotzen dira eta horren ondorioz arrain-fauna desagertu egiten da. Aizpurutxo eta Azkoitia arteko zatian autodepurazio-prozesua gertatzen da eta horrek uraren kalitatea hobetzea ahalbidetzen du. Hurrengo kilometroetan uraren kalitatea nabarmen igotzen da batez ere hiru faktoreen eraginez. Hona hirurak: isurketak desagertzea (Baliologiko Hondakin Uren Araztegia), Ibai-Eder ibaiaren emari garbien ekarria eta urtegitiko emari erregulatuen ekarria. Azken zatiaren inguruan azpimarratzekoa da Zestoako harrobi baten isurketa solidoen eragina, parametro hori handitzea ondorio duena. Azkenik, oraindik ere paper-fabriken isurketak, uren kalitatea nabarmen jaitsiarazten dutenak, izaten dira estuarioen zonaren inguruan.

Urola ibaiaren arroan kokatzen dira Pagoetako Parke Naturaleko eta Aizkorri Parke Naturaleko zati bana.



1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

Halaber bertan ditugu ES 21120019 Ernio-Gazume eta ES 2120018 Izarraitz guneak, "Natura 2000" sarean barne hartutakoak.

Bestalde, interes naturalistikoko area gisa katalogatutako ondorengo zonak ere Urola arroari dagozkio:

- (29) Santiagoko hondartza-aurrea
- (30) Urola itsasadarra - Bedua
- (50) Murumendi
- (51) Gorostiaga mendia (Satui)

Berreskuratzeko eskuhartzeak egiteko proposatzen ditugunen artean honako ibaitarteak azpimarra genitzake:

- Urola ibaia. Eskuinaldeko ertza. 16,4 PK
- Urola ibaia. 22,5 - 23 PK eta 23,5 - 25 PK tarteak.
- Urola ibaia. Eskuinaldeko ertza. 31 PK.
- Katuin ibaia. 0 - 0,5 PK tartea.
- Urola ibaia. Eskuinaldeko ertza. 44 eta 44,3 PK.

### **Deba ibaiaren arroa**

Goi-ibarraren inguruak kontserbazio-egoera ezin hobea du. Haltzadia eta Arlaban gaineko eta Elgea mendizerraren iparraldeko isurialdeko pagadietan integratzen den horren aldaera menditarra dira nagusi bertan. Alabaina, Leintz-Gatzaga inguruan haltzadia zuhaitz-zerrenda estu batera mugatzen duten belardiak eta baso-landatzeak hasten dira nagusitzen. Eskoriatzatik ibaibidean behera Deba ibaiaren degradazioa handia da eta erriberako basoa ia desagertu egiten da. Nahiz eta belardien portzentaia esanguratsua izan, hiri- eta industria-asantamenduak eta bide-azpiegiturak dira ibaien ertzetan eragin gehien izaten duten erabilerak. Egoera horren salbuespen San Prudentzio ingurua dugu, izan ere, bertan hegaleko haltzadiak eta hariztiak balio aipagarria dute Deba ibaiaren erdialde honetako natur komunitatearen ordezkari gisa.

San Prudentziotik Maltzagara egoera berdina da. Nolanahi ere, komenigarria litzateke aipatzea ibaitarte batzuetan erriberako basoa dagoela, oro har, bananondoak nagusi dituzten degradatutako haltzadiak, hain zuzen ere.

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

Maltzaga eta Mendaro artean, erriberen ruderalizazioa nagusi bada ere, erriberako zuhaiztia —bananondoak nagusi dituen haltzadia— duten ibaitarteek luzera esanguratsuak dituzte. Egoera horrek ia bokaleraino jarraitzen du gisa horretan. Zati handi samar batean zehar, CN-634 errepideak eta Bilbo-Donostia trenbideak ibaiaren ondoan dituzte beren ibilbideak. Bestalde, bokalean itsasadarra kanalizatuta dago. Beren luzera dela eta aipagarriak dira bananondo-ilarak. Casa de Campo izenekoaren inguruan, berriz, padura-hondar batzuk kontserbatu dira. Deba inguruan belardiak eta labore-lurrak dira nagusi eta sartuta dagoen ezkeraldeko ertzaren tarte batean mendi-hegala estaltzen duen haltzadi kantauriarra ibaiaren ertzearaino jaisten da.

Deba ibaiaren haran nagusiaren hondoan hiri-erabilerak eta azpiegiturak dira galeria-basoaren degradazioaren kausa. Bere arroaren adar nagusien kasuan, berriz, ruderalizatutako areak eta ertzetako belardiak eta konifera-landatzeak tartekatzen dira. Gisa horretan maila batean zein bestean esanguratsu diren galeria-basoei eusten zaie.

Erretena txikietan baso-erabilera intentsiboak, arro honetan asko zabaldu denak, urbazterreko komunitate naturalen, haranaren hondoetara mugatuta daudenen, garapena baldintzatzen du, ohikoa baita landatzea erretenaren ertzearaino eramatea.

Egoera horren salbuespenak Deba ibaiaren goi-ibarra, Eskoriatzatik gora eta San Prudentzioko zatia dira.

Arantzazu ibaiari dagokionean azpimarratzekoa da Olate zentral elektrikoaren eta Gabiriaren artean dagoen haltzadi-zatia. Nabarmentzeko modukoak dira, halaber, Segar-erreka erretena eta Kikimon erreken goi-ibarra.

Ornodunen faunari dagokionean Debaren egoera eskasa da. Goiko-ibarretako uraren kalitatearen egoerak bakarrik ahalbidetzen du arrain-komunitate handi samarraren asentamendua. Aretxabaletatik aurrera eta bokalera arte poluzioa handia da eta horrek berezko ornodunen komunitatearen presentzia eragozten du. Zenbait ibaitartetan arrain-fauna ez da existitzen. Gainera, dagoen tokietan espezierik erresistenteenak baino ez dira izaten.

Zona altuko erretenek, Aramaio, Oñati (Oñatitik ibaian gora), Urkulu, Antzuola eta Uberak, artapen-egoera onargarria dute eta horrek arrain-espezieen presentzia ahalbidetzen du. Kontserbazio interesa dela eta azpimarratzekoa da Kilimon erreteneko ornodunen komunitatea. Urkuluko urtegia ere intereseko ingurunea da faunarako.

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

Uren kalitateari dagokionean Deba ibaiaren goi-ibarraren egoera hobezina da Eskoriatzaraino, poluitzaileen kontzentrazioren gorakada handia sortzen den punturaino. Egoera horrek antzera jarraituko du Deba ibaiaren ardatzaren zati handienean zehar, izan ere, hiri- eta industria-inguruneak bakanak dira. Horrek balizko autodepurazioa eta adar-erretena batzuen ekarri garbiak indarrak gabe uzten ditu. Poluzioa zertxobait hasten da arintzen Soraluze inguruan, jarduera poluitzaileak gutxitzeari esker. Eibar-Ermuako isurketek, Debara Egoren bidez iristen direnak, eta Elgoibarkoek berriz ere poluzioa igoarazten dute. Kalitatea berriz ere pixka bat berreskuratzen da azken ibaitartean, Menderoren parean, nahiz eta oro har kalitatea baxua izan. Adarren egoera anitza da. Oñati eta Antzuolak, azken ibaitarteetan, oso poluzio handia dute. Alabaina, Ego da azpimarratzekoa, lurralde historiko guztiko ibai-ubiderik poluituena baita. Deba ibaiak eta bere adarrek, hiri-isurketek eragindako poluzio organikoaz gain, industria-jatorriko poluitzaile toxikoen presentzia esanguratsua dute.

Debaren arroan dugu Urkiolako Parke Naturalaren zati bat eta Aizkorriko Parke Naturalaren zati handi bat.

Halaber arro honetan dugu ES 2120017 Arno lekua, "Natura 2000" sarean barne hartutakoa.

Horiez gain interes naturalistikoko area gisa katalogatutako honako zona hauek daude mintzagai dugun arroan:

- (25) Udalaiz
- (33) Haranerreka harana
- (36) Karakate-Irurutzeta-Agerreburu
- (52) Aizkorri, Alzama, Urkila-Elgea eta Zaraia mendizerrak.

Ondoren adierazitako ibaitarteetan berreskurtzeko eskuhartzeak egitea proposatzen da:

- Deba ibaia. Ezkerraldeko ertza, 16,5 - 8,2 PK.
- Deba ibaia. Ezkerraldeko ertza, 14,2 - 14,8 PK.
- Deba ibaia. Ezkerraldeko ertza, 17,8 - 18,0 PK.
- Deba ibaia. Ezkerraldeko ertza, 18,9 - 19,3 PK.
- Deba ibaia. Eskuinaldeko ertza, 23,9 - 24,5 PK.
- Angiozar ibaia. Hondakindegia, 0,8 PK

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

- Deba ibaia. Ezkerraldeko ertza, 35,7 - 36,0 PK
- Deba ibaia. 39,6 - 40,2 PK ibaitartea
- Aramaio ibaia. 2,8 - 3,2 PK ibaitartea

### **Inurritza ibaiaren artoa**

Arro txiki honek Pagoetako iparraldeko isurialdean eta Meagas inguruan jaiotzen diren erretena txikiak drenatzen ditu. Lehenengo ibaitarteetan harizti-orbanei, ibarren hondoetara mugatuta daudenei, eusten zaie. Mendi-hegalak baso-birlandatzeek eta sega-belardiek betetzen dituzte. Zarauzko industria-poligonotik aurrera Inurritza erretenak ertzei zein uraren kalitateari eragiten dien degradazio handia jasaten du.

Ikuspegi naturalistikotik arro honetako alderdirik nabariena azken ibaitartean dauden Zarauzko duna eta hondartzak eta padura-hondarrak, giro horietako berezko espezieak (horietako askok gainera oso banaketa mugatua dute EAEn) dituztenak dira.

Inurritzaren bokalearen inguruko espazioa babestutako biotopo deklaraturako da eta Pagoetako Parke Naturalaren zati bat arro honetan dago.

Interes naturalistikoko espazioen katalogoan honakoak ere hartu dira barne:

- (35) Garate-Sta. Barbara.
- (37) Inurritzako dunak eta itsasadarra.

### **Narrondo ibaiaren artoa**

Narrondo ibaiaren artoa osatzen duten erretenen erriberako basoa haltzadi-tarte txikietara mugatutakoa da. Haltzadi hori, gainera, goiko eta erdi-mailako ibaitarteetan degradatua egon ohi da oro har, belardien eta labore-lurren eragin handiaren ondorioz. Beheko ibaitartean ibaiak bere egoera naturala oso degradatuta du.

Uraren kalitatea onargarria da erretenaren ibilbidearen zati handi batean. Arrain-espezie tipikoak, ohikoak (aingirak, hondoetako korrokoa, platuxa) barne hartzen dituztenak ditu marearen inguruko zonetan.

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

Interes naturalistikoko espazioen katalogoan Narrondo ibaiaren arroko honako espazioa hartu da barne:

- (32) Andutz mendia.

### **Saturraran ibaiaren arroa**

Arro honetako erretenek erriberako basoaren garapen eskasa dute beren goi-ibarretan baso-birlandatze ugarien eraginez. Ibaian behera goazela belardiak eta labore-lurrak izango dira haltzadien garapena eragotziko dutenak. Izan ere, bokalearen inguruan ertzak hiri-erabileren ondorioz degradatuta egongo dira.

Urak Olatzeko harantxoan infiltratzen dira, Arno mazizoa zeharkatzen dute eta Debako hainbat tokitan agertzen dira. Olatzeko haran hori, jatorri karstikoa duena, ingurune luzangako polje bat da eta bertan kolapso-dolinak eta hustubideak ikus daitezke. Horixe dugu arro honen alderdirik azpimarragarriena.

Saturraran ibaiaren arroan ES 2120017 Arno lekua, "Natura 2000" sarean barne hartutakoa, dugu.

## **4.2. HIDRAULIKA-OSAGAIAREN ALDERDIAK**

### **Urola ibaiaren arroa**

Urola ibaiaren arroak 336 Km<sup>2</sup>-ko guztizko azalera du. Bere mugabanaketaren barruan hartu dugu aintzat Lasturgo arro itxia.

LAParen antolamendu-eremuan guztiz barne hartutako erkidego barruko arroa dugu.

Honako hauek dira bere adar nagusiak eta horien azpiarroak:

- a) Eskuinaldeko ertzean:
  - Altzolaras (29 Km<sup>2</sup>)
  - Ibaieder (101 Km<sup>2</sup>)
  - Errezil (30 Km<sup>2</sup>)
  - Aratz (19 Km<sup>2</sup>)
- b) Ezkerraldeko ertzean:

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

- Goltzibar (13 Km<sup>2</sup>)
- Katuin (13 Km<sup>2</sup>)

Urola ibaiak 59 Km-ko garapena du Astilleros Balenciagatik, Urolaren itsasadarretik, Brinkolara. Desnibela, berriz, 460 metrokoa da.

Urola garaian bi urtegi txiki daude, Barrendiola eta Urtatza, eta Ibaiederren goi-ibarrean Ibaiedergo urtegia eraiki da Urola Erdialdeko eta Behe Urola-Kostako eskualdeen hornidura-sistema konpontzeko.

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

Urola ibaiaren arroaren ibaibidea ondoren adierazitako ibaitarteetan bana genezake ikuspegi hidraulikoaren arabera:

IV kategoriako ibaitarteak ( $200 < A \leq 400 \text{ Km}^2$ )

Urola, 0 (N-634ko zubi zaharraren azpian dagoen itsasadarraren puntua) - 26,6 Km (Ibaiederrekiko elkargunea)

III kategoriako ibaitarteak ( $100 < A \leq 200 \text{ Km}^2$ )

Urola, 26,6 - 34,5 Km (Ormaola errekarrekiko elkargunea)  
Ibaieder, 0 (Urolarekiko elkargunea) - 1,5 (Errezilekiko elkargunea)

II kategoriako ibaitarteak ( $50 < A \leq 100 \text{ Km}^2$ )

Urola, 34,5 - 47,6 Km (Altzolako errekarrekiko elkargunea)  
Ibaieder, 1,5 - 4,2 Km (Aratzekiko elkargunea)

I kategoriako ibaitarteak ( $10 < A \leq 50 \text{ Km}^2$ )

Urola, 47,6 - 59,0 (Barrendiola erretenarekiko elkargunea)  
Altzolarats, 0 (Urolarekiko elkargunea) - 7,2 (Granada errekarrekiko elkargunea)  
Goltzibar, 0 (Urolarekiko elkargunea) - 1,0 (Zastarrain errekarrekiko elkargunea)  
Ibaieder, 4,2 - Ibaieder urtegia  
Errezil, 0 (Ibaiederrekiko elkargunea) - 6,6 (Zeabil errekarrekiko elkargunea)  
Aratz, 0 (Ibaiederrekiko elkargunea) - 3,4 (Erreka Gorrirekiko elkargunea)  
Katuin, 0 (Urolarekiko elkargunea) - 1,9 (Errasti errekarrekiko elkargunea)

0 kategoriako ibaitarteak ( $1 < A \leq 10 \text{ Km}^2$ )

LAParen informazio grafikoan adierazitako erreken multzoari dagozkie, berariazko identifikaziorik gabe.

00 kategoriako ibaitarteak ( $A \leq 1 \text{ Km}^2$ )

LAParen dokumentazio grafikoan barne hartzen ez diren gainerako erreka txiki edo aldizkako isurketen ibaibideei dagozkie.

Iparra III Plan Hidrologikoan uholdeak prebenitzeko eskuhartzeak egiteko lehentasunezko zonatzat hartu dira Urola Erdialdea (Azkeitia, Azkoita) eta Urola

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

Garaia (Urretxu-Zumarraga. Legazpi).

Epe luzera arroaren ubide nagusietan dauden estaldurak pixkanaka kentzeko politika proposatzen dugu:

- Urola. 26,7 Km. (Azpeitiko merkatua) (145 Km<sup>2</sup>)
- Urola. 32,3 Km. (Azkoitiko merkatua) (130 Km<sup>2</sup>)
- Ibaieder. 0,0 Km. (101 Km<sup>2</sup>)
- Urola. 48,9 Km. (Urretxu-Zumarraga) (50 Km<sup>2</sup>)
- Urola. 49,8 - 50,8 Km. (Renfe-Orbegozo) (49 Km<sup>2</sup>)
- Urola. 52,3 - 53,8 Km. (Patricio Etxeverria) (38 Km<sup>2</sup>)
- Urola. 54,2 Km. (P. Elorza) (32 Km<sup>2</sup>)

Bestalde, hiri-zonatan estalitako erretena txiki ugari izatearen ondorioz sortutako arazo hidraulikoak sistematikoki berrikustea ere proposatzen da, batez ere arroen goi-ibarretan hirigintza-garapen berriak planteatu baino lehen.



1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

### Deba ibaiaren arroa

Deba ibaiaren arroak 512 Km<sup>2</sup>-ko guztizko azalera du.

LAParen antolamendu-eremuan guztiz barne hartutako erkidego barruko arroa dugu. Zatik handiena Gipuzkoari badagokio ere, Bizkaiko zati bat (Ego ibaiaren goi-ibarrean) eta Arabako zati bat (Aramaioko goi-ibarrean) ere hartzen ditu.

Honako hauek dira bere adar nagusiak eta horien azpiarroak:

- a) Ezkerraldeko ertzean:
  - Kilimon (14 Km<sup>2</sup>)
  - San Lorenzo (11 Km<sup>2</sup>)
  - Antzuola (25 Km<sup>2</sup>)
  - Oñati (130 Km<sup>2</sup>)
  - Urkulu (28 Km<sup>2</sup>)
  - Arantzazu (56 Km<sup>2</sup>)
  - Araotz (17 Km<sup>2</sup>)
  
- b) Ezkerraldeko ertzean:
  - Ego (56 Km<sup>2</sup>)
  - Aixola (14 Km<sup>2</sup>)
  - Mallabia (13 Km<sup>2</sup>)
  - Ubera (15 Km<sup>2</sup>)
  - Angiozar (13 Km<sup>2</sup>)
  - Aramaio (42 Km<sup>2</sup>)

Deba ibaiak 56 Km-ko luzera du bokaletik Leitz-Gatzagaraino eta desnibela 400 metrokoa da.

Deba Garaian Urkuluko urtegia dugu eta Ego ibaiaren goi-ibarrean Aixolako urtegia, eskualde osoaren hornidura-sistemaren oinarritzko elementu gisa. Jaturabeko urtegia, ekoizpen hidraulikorakoan duen helburua dela eta ez dugu mapetan grafikoki adierazi.

Deba ibaiaren arroaren ibaibidea ondoren adierazitako ibaitarteetan bana genezake ikuspegi hidraulikoaren arabera:

V kategoriako ibaitartea (400 < A ≤ 600 Km<sup>2</sup>)

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

Deba, 0 (itsasoko bokalea, GI-638 errepideko zubitik 850 metro behera) - 19,4 Km (Maltzaga, Egorekiko elkargunea)

IV kategoriako ibaitarteak ( $200 < A \leq 400 \text{ Km}^2$ )

Deba, 19,400 - 37,4 Km (San Prudentzio)

III kategoriako ibaitarteak ( $100 < A \leq 200 \text{ Km}^2$ )

Deba, 37,4 - 42,2 Km (Aramaiorekiko elkargunea)

Oñati, 0 (Debarekiko elkargunea) - 5,9 (Arantzazurekiko elkargunea)

II kategoriako ibaitarteak ( $50 < A \leq 100 \text{ Km}^2$ )

Deba, 42,2 - 47,3 Km (Bustintegi erretenarekiko elkargunea)

Ego, 0 (Debarekiko elkargunea) - 1,5 (Gorosta errekarrekiko elkargunea)

Arantzazu, 0 (Oñatirekiko elkargunea) - 2,3 (Eguzkitza errekarrekiko elkargunea)

I kategoriako ibaitarteak ( $10 < A \leq 50 \text{ Km}^2$ )

Deba, 47,3 - 54,8 (Egozibar errekarrekiko elkargunea)

Kilimon, 0 (Debarekiko elkargunea) - 2,5

San Lorenzo, 0 (Debarekiko elkargunea) - 1,5

Ego, 1,5 - 7,2

Aixola, 0 (Egorekiko elkargunea) - 1,5

Mallabia edo Zabaleta, 0 (Egorekiko elkargunea) - 0,6 (Berano errekarrekiko elkargunea)

Ubera, 0 (Debarekiko elkargunea) - 2,2 (Atxotegi errekarrekiko elkargunea)

Antzuola, 0 (Debarekiko elkargunea) - 4,2 (Antzinako errekarrekiko elkargunea)

Angiozar, 0 (Debarekiko elkargunea) - 2,3 (Otzaileko errekarrekiko elkargunea)

Urkulu, 0 (Oñatirekiko elkargunea) - *Urkulu urtegia*

Oñati edo Ubao, 5,9 - 11,8 (Aldaba errekarrekiko elkargunea)

Arantzazu, 2,3 - 10,2 (Bilotza errekarrekiko elkargunea)

Araotz, 0 (Arantzazurekiko elkargunea) - 1,2

Aramaiio, 0 (Debarekiko elkargunea) - 9,4 (Aspistiko errekarrekiko elkargunea)

0 kategoriako ibaitarteak ( $1 < A \leq 10 \text{ Km}^2$ )

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

LAParen informazio grafikoan adierazitako erreken multzoari dagozkio, berariazko identifikaziorik gabe.

00 kategoriako ibaitarteak ( $A \leq 1 \text{ Km}^2$ )

LAParen dokumentazio grafikoan barne hartzen ez diren gainerako erreka txiki edo aldizkako isurketen ibaibideei dagozkie.

Iparra III Plan Hidrologikoan uholdeak prebenitzeko eskuhartzeak egiteko lehentasunezko zona gisa hartu dira barne Deba ibaia, Eibartik Eskoriatzara, eta Ego ibai osoa.

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

Epe luzera Deba arroaren ubide nagusietan dauden estaldurak pixkanaka kentzeko politika proposatzen dugu. Eibar eta Ermuako herriguneen azpian dauden estaldurak (Ego ibaia) eta Arrasate udalerrriaren azpikoak (Aramaio ibaia) arazo bereziak dira. Horiek estaldutako ubideak irekitzean oinarrituko ez diren irtenbide alternatiboen bidez konpondu beharko dira. Estalitako ubidea duten ibaitarte nagusiak honakoak dira:

- Deba ibaia. 42,4 - 42,7 Km. (U. Cerrajera) (67 Km<sup>2</sup>)
- Deba ibaia. 43,0 - 43,1 Km. (San Andres auzoa) (66 Km<sup>2</sup>)
- Deba ibaia. 43,8 - 44,3 Km. (Fagor) (65 Km<sup>2</sup>)
- Ego ibaia. 0,0 Km. (Maltzaga) (56 Km<sup>2</sup>)
- Ego ibaia. 0,5 Km. (Mail) (55 Km<sup>2</sup>)
- Deba ibaia. 48,2 - 48,3 Km. (Ederlan) (47 Km<sup>2</sup>)
- Ego ibaia. 1,5 - 4,3 Km. (Eibar) (40 - 50 Km<sup>2</sup>)
- Aramaio ibaia. 0,0 - 1,0 Km. (Arrasate) (42 Km<sup>2</sup>)
- Ego ibaia. 4,7 Km. (Eibar) (40 Km<sup>2</sup>)
- Ego ibaia. 4,9 Km. (DEJ) (40 Km<sup>2</sup>)
- Oñati edo Ubao ibaia. 7,1 - 7,3 Km. (Garay) (35 Km<sup>2</sup>)
- Deba ibaia. 49,8 - 50,1 Km. (Eskoriatza) (31 Km<sup>2</sup>)
- Deba ibaia. 50,8 Km. (Eskoriatza) (30 Km<sup>2</sup>)
- Oñati edo Ubao ibaia. 8,2 - 8,3 (Oñati) (30 Km<sup>2</sup>)
- Aramaio ibaia. 5,0 - 5,5 Km. (Sta. Ageda) (25 Km<sup>2</sup>)
- Antzuola ibaia. 0,1 - 0,3 Km. (Movilla Bergara) (25 Km<sup>2</sup>)
- Ego ibaia. 6,1 - 7,0 Km. (Ermua) (18 Km<sup>2</sup>)
- Ubera ibaia. 0,6 Km. (TTT) (15 Km<sup>2</sup>)
- Mallabia ibaia. 0,0 - 1,0 Km. (Ermua) (13 Km<sup>2</sup>)
- Antzuola ibaia. 3,6 Km. (Antzuola) (13 Km<sup>2</sup>)
- Angiozar ibaia. 0,7 Km. (13 Km<sup>2</sup>)

Bestalde, hiri-zonatan estalitako erretena txiki ugari izatearen ondorioz sortutako arazo hidraulikoak sistematikoki berrikustea ere proposatzen da, batez ere arroen goi-ibarretan hirigintza-garapen berriak planteatu baino lehen.

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

### **Inurritza ibaiaren arroa**

Inurritza ibaiaren arroak 20 Km<sup>2</sup>-ko guztizko azalera du

LAParen antolamendu-eremuan guztiz barne hartutako erkidego barruko itsasertzeko arro txikia dugu.

Inurritza edo San Pelaio ibaiarekin hainbat erretena txikik egiten dute bat Zarauzko ibarraren beheko aldean. Horietako batek, Irain erretenak, urpean geratzeko arrisku larria sortzen du Zarauzko herrigunean. Hori dela eta, Santa Barbara mendiaren azpiko tunel baten bidez zuzenean itsasora irtetzeko proiektua egin da. Alderdi hori jada aintzat hartu dugu eta planimetriatik kendu egin dugu Zarauzko herrigunean barrena egun duen ibilbidea.

Inurritza ibaiaren arroaren ibaibidea ondoren adierazitako ibaitarteetan bana genezake ikuspegi hidraulikoaren arabera:

**I kategoriako ibaitarteak** ( $10 < A \leq 50 \text{ Km}^2$ )

Inurritza, 0 (itsasoko bokalea, oinezkoentzako pasabidearen azpian dagoen puntua) - 2,5 Km (Ola erreka-errekiko elkargunea)

**0 kategoriako ibaitarteak** ( $1 < A \leq 10 \text{ Km}^2$ )

LAParen informazio grafikoan adierazitako erreken multzoari dagozkio, berariazko identifikaziorik gabe.

**00 kategoriako ibaitarteak** ( $A \leq 1 \text{ Km}^2$ )

LAParen dokumentazio grafikoan barne hartzen ez diren gainerako erreka txiki edo aldizkako isurketen ibaibideei dagozkie.

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

### **Narrondo ibaiaren arroa**

Narrondo ibaiaren arroak 21 Km<sup>2</sup>-ko guztizko azalera du.

LAParen antolamendu-eremuan guztiz barne hartutako erkidego barruko itsasertzeko arro txikia dugu, Urola ibaiaren arro nagusitik bereizi duguna, izan ere, honen zero puntua Zumaiako herrigunetik ibaian gora ezarri dugu.

Narrondo ibaiak 5 Km-ko garapena du Presalde erreteneraino, bere adarrik nagusiena deneraino.

Narrondo ibaiaren arroaren ibaibidea ondoren adierazitako ibaitarteetan bana genezake ikuspegi hidraulikoaren arabera:

I kategoriako ibaitarteak ( $10 < A \leq 50 \text{ Km}^2$ )

Narrondo, 0 (Urola itsasadarrekiko elkargunea) - 5,2

0 kategoriako ibaitarteak ( $1 < A \leq 10 \text{ Km}^2$ )

LAParen informazio grafikoan adierazitako erreken multzoari dagozkio, berariazko identifikaziorik gabe.

00 kategoriako ibaitarteak ( $A \leq 1 \text{ Km}^2$ )

LAParen dokumentazio grafikoan barne hartzen ez diren gainerako erreka txiki edo aldizkako isurketen ibaibideei dagozkie.

Epe luzera arroaren ubide nagusietan dauden estaldurak pixkanaka kentzeko politika proposatzen dugu:

- Narrondo. 1,5 Km. (Galvanizados Olaizola) (20 Km<sup>2</sup>)
- Narrondo. 2,0 Km. (Cementos Rezola) (18 Km<sup>2</sup>)

Horrezaz gain erretena txikietan beste estaldura batzuk izatearen ondorioz sortutako arazo hidraulikoak berrikustea ere proposatzen dugu.

### **Saturraran ibaiaren arroa**

Saturraran edo Mijoaren arroak 11 Km<sup>2</sup>-ko azalera du, edo 18 Km<sup>2</sup>-koa Olatzeko

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

arro itxia gehitzen badiogu.

LAParen antolamendu-eremuan guztiz barne hartutako erkidego barruko itsasertzeko arro txikia dugu.

Saturraran ibaiaren arroaren ibaibidea ondoren adierazitako ibaitarteetan bana genezake ikuspegi hidraulikoaren arabera:

I kategoriako ibaitarteak ( $10 < A \leq 50 \text{ Km}^2$ )

Saturraran edo Mijoa, 0 (itsasoko bokalea, GI-638 errepidearen zubitik 700 m behera) - 1,8 (Artzai errekarrekiko elkargunea)

0 kategoriako ibaitarteak ( $1 < A \leq 10 \text{ Km}^2$ )

LAParen informazio grafikoan adierazitako erreken multzoari dagozkio, berariazko identifikaziorik gabe.

00 kategoriako ibaitarteak ( $A \leq 1 \text{ Km}^2$ )

LAParen dokumentazio grafikoan barne hartzen ez diren gainerako erreka txiki edo aldizkako isurketen ibaibideei dagozkie.

### 4.3. HIRIGINTZA-OSAGAIAREN ALDERDIAK

#### Urola ibaiaren arroa

Urola ibaiaren arroaren eremua ondoren adierazitako udalerrietan barrena hedatzen da: Zumaia, Zestoa, Getaria, Aizarnazabal, Deba, Azpeitia, Errezil, Bidegoian, Beizama, Beasain, Ezkio-Itsaso, Azkoitia, Bergara, Antzuola, Zumarraga, Urretxu, Legazpi, Gabiria, Mutiloa eta Zegaman barrena.

Ertzak antolatzeko mapetan, hirigintza-osagaiaren araberakoetan, udaleko hirigintza-plangintzari buruzko honako erreferentziak hartu dira barne:

- Airzarnazabalgo Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 89.12.21
- Antzuolako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 84.10.16
- Azkoitiko Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 91.06.7
- Azpeitiko Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 96.12.13
- Beasaingo Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 95.04.25
- Beizamako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 90.03.23
- Bergarako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 96.07.23
- Bidegoiango Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 96.10.21
- Debako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 85.05.22



1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

- Errezilgo Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 96.12.13
  
- Ezkio-Itsasoko Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 89.10.25
  
- Gabiriako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 92.04.30
  
- Getariako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 90.03.23
  
- Legazpiko Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 87.07.22
  
- Mutiloako Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 92.04.2
  
- Urretxuko Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 90.07.30
  
- Zegamako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 92.11.10
  
- Zestoako Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 96.09.30

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

- Zumaiako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 93.06.9
- Zumarragako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 94.05.17

Hirigintza-alderdi adierazgarri gisa, ibaien ertzetan dauden hirigune historiko batzuen kokagunea adierazi dugu dokumentazio grafikoan:

- Azpeitiko hirigune historikoa. Urola ibaia. Ezkerraldeko ertza, 26,3 - 26,7 Km.
- Azkoitiko hirigune historikoa. Urola Ibaia. Ezkerraldeko ertza, 32,2 - 32,7 Km.

Horrezaz gain Urola ibaiaren arroan kultur interesa duten honako zubi hauek daudela adierazi da:

- Iraetako zubia, Urola ibaiaren gainekoa, 15,1 Km (Zestoa).  
B.8. Iraeta.
- Zubiaurre zubia, Urola ibaiaren gainekoa, 17,4 Km (Zestoa).  
B.19. Zubiaurre
- Enparan zubia, Urola ibaiaren gainekoa, 26,4 Km (Azpeitia).  
B.6. Enparan.
- Amube zubia, Ibaieder ibaiaren gainekoa, 0,7 Km (Azpeitia).  
A.1. Amube edo Zubi Zaharra, kalifikatutako ondasun kulturala, 64.01.17
- Loiolako zubia, Urola ibaiaren gainekoa, 28,4 Km (Azpeitia).  
B.11. Loiola.

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

- Isasaga zubia, Urola ibaiaren gainekoa, 31,5 Km (Azkoitia).  
B.9. Isasaga.
- Aitxuerrota zubia, Urola ibaiaren gainekoa, 45,3 Km (Urretxu-Zumarraga).  
B.1. Aitxuerrota.

Azkenik, Urola ibaiaren eskuinaldeko ertzean, 56,8 Km-an, kokatutako Mirandaola burdinola kultur interesa duten elementu gisa adierazi da.

### **Deba ibaiaren arroa**

Deba ibaiaren eremua ondoren adierazitako udalerrietan barrena garatzen da: Deba, Mutriku, Mendaro, Azkoitia, Elgoibar, Eibar, Ermua, Mallabia, Zaldibar, Elorrio, Elgeta, Soraluze, Bergara, Antzuola, Oñati, Arrasate, Aramaio, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz-Gatzagan barrena.

Ertzak antolatzeko mapetan, hirigintza-osagaiaren araberakoetan, udaleko hirigintza-plangintzari buruzko honako erreferentziak hartu dira barne:

- Antzuolako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 84.10.16
- Aramaioko Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 96.03.6
- Aretxabaletako Arau Subsidiarioak  
AASSen aurrelaburpena: 95.01.11
- Arrasateko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra  
Aurrelaburpena: 94.01.21
- Azkoitiko Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 91.06.7
- Bergarako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 96.07.23

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

- Debako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 85.05.22
  
- Eibarko Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 89.12.30
  
- Elgetako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 80.06.20
  
- Elgoibarko Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 92.07.30
  
- Elorrioko Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 94.04.27
  
- Ermuako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra  
Aurrelaburpena: 94.10.28
  
- Eskoriatzako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 83.03.26
  
- Leintz-Gatzagako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 87.07.23
  
- Mallabiako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 95.09.8

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

- Mendaroko Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 91.08.7
  
- Mutrikuko Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 96.09.16
  
- Oñatiko Arau Subsidiarioak  
Behin-behineko onarpenaren agiria: 96.06.26
  
- Soraluze-Plazentziko Arau Subsidiarioak  
Hasierako onarpenaren agiria: 91.04.8
  
- Zaldibarko Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 96.04.24

Hirigintza-alderdi adierazgarri gisa, ibaien ertzetan dauden hirigune historiko batzuen kokagunea adierazi dugu dokumentazio grafikoan:

- Elgoibarko hirigune historikoa. Deba ibaia. Eskuinaldeko ertza. 15,8 - 16,2 Km.
  
- Oñatiko hirigune historikoa. Oñati edo Ubao ibaia. Eskuinaldeko ertza. 7,6 - 8,7 Km.
  
- Aretxabaletako hirigune historikoa. Deba ibaia. Eskuinaldeko ertza. 46,4 - 46,5 Km.
  
- Eskoriatzako hirigune historikoa. Deba ibaia. Eskuinaldeko eta ezkerreko ertza. 50,0 - 50,2 Km.
  
- Ibarako hirigune historikoa. Aramaio ibaia. Eskuinaldeko eta ezkerreko ertza. 9,1 - 9,9 Km.

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

Horrezaz gain Deba ibaiaren arroan kultur interesa duten honako zubi hauek daudela adierazi da:

- Debako zubia, Deba ibaiaren gainekoa. 0,8 Km (Deba). B.5. Deba.
- Sasiolako zubia, Deba ibaiaren gainekoa. 6,3 Km (Deba-Mutriku-Mendaro). B.15. Sasiola.
- Alzola zubia, Deba ibaiaren gainekoa. 11,4 Km (Elgoibar). B.3. Alzola.
- Osintxu zubia, Deba ibaiaren gainekoa. 25,4 Km (Bergara). B.13. Osintxu.
- Zubizaharra zubia, Deba ibaiaren gainekoa. 29,8 Km (Bergara). B.22. Zubizaharra.
- Ozaetako zubia, Deba ibaiaren gainekoa. 32,9 Km (Bergara). B.14. Ozaeta.
- Garibai zubia, Oñati ibaiaren gainekoa. 5,9 Km. (Oñati) A.3. Garibai.
- Klaustro 1 eta 2 zubiak, Oñati edo Ubao ibaiaren gainekoak. 8,3 Km (Oñati). A.2. Klaustroa 1 eta 2.
- Jaturabe zubia, Araotz ibaiaren gainekoa, 0,05 Km (Oñati). B.10. Jaturabe.
- Akiso zubia, Aramaio ibaiaren gainekoa. 4,0 Km (Arrasate). B.2. Akiso.

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

### **Inurritza ibaiaren arroa**

Inurritza ibaiaren arroa Zarautz, Aia eta Getaria udalerrietan barrena hedatzen da.

Ertzak antolatzeko mapetan, hirigintza-osagaiaren arabera, udaleko hirigintza-plangintzari buruzko honako erreferentziak hartu dira barne:

- Zarauzko Arau Subsidiarioak  
Hasierako onarpenaren agiria: 95.09.13
  
- Aiako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 93.11.5
  
- Getariako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 90.03.23

### **Narrondo ibaiaren arroa**

Narrondo ibaiaren arroaren eremua Zumaia, Zestoa eta Deba udalerrietan barrena hedatzen da.

Ertzak antolatzeko mapetan, hirigintza-osagaiaren arabera, udaleko hirigintza-plangintzari buruzko honako erreferentziak hartu dira barne:

- Zumaia Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 93.06.9
  
- Zestoako Arau Subsidiarioak  
Zatikiko onarpenaren agiria: 96.09.30

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

- Debako Arau Subsidiarioak  
Behin betiko onarpenaren agiria: 85.05.22

**Saturraran ibaiaren arroa**

Saturraran ibaiaren arroaren eremua Mutriku udalerriari dagokio bete-betean.

Ertzak antolatzeko mapetan, hirigintza-osagaiaren araberakoetan, Mutriku udaleko hirigintza-plangintzari buruzko honako erreferentzia hartu da barne:

- Mutrikuko Arau Subsidiarioak  
Zatiko onarpenaren agiria: 96.09.16



## 5. ITSASERTZEKO ARROAK

Itsasertzeko erlaitzean hainbat ibaibide txiki daude, zuzenean itsasora isurtzen duten dimentsio txikiko arroak dituztenak. Erretena nagusiak hauek dira:

- Sta. Engrazia erretena, Hondarribikoa.
- Lezo, Molinao eta Herrerako erretenak, Pasaiaiko badian isurtzen dutenak.
- Arranomendi eta Errotaberri erretenak, Zumaia eta Deba arteko itsasertzera isurtzen dutenak.
- Jaizkibel eta Mendizorrotz mendietako eta Getaria, Zumaia, Deba eta Mutrikuko itsasertzeko arro txikiak.

### **Ingurugiro-osagaiaren alderdiak**

Azpimarratzekoa da Jaizkibel eta Mendizorrotz mendien iparraldeko isurialdeko erreken interes naturalistikoa, izan ere, espezie ugariko geruza belarkara du. Espezie horietako batzuk bereziki bitxiak dira Euskal Herrian, baita kontinentean bertan ere.

Itsasertzeko zerrendan ES 2120025 Jaizkibel eta ES 2120016 Ulia lekuak ditugu, "Natura 2000" sarean barne hartutakoak.

Horiez gain lehentasunezko interes naturalistikoko gisa katalogatutako honako espazio hauek ditugu:

- (26) Mutriku-Saturrarango itsaslabarrak
- (28) Aitzuri lurmuturra (Mendata)-Zumaia.
- (31) San Anton. Getariako saga.
- (40) Mendizorrotzeko errekek.

### **Hidraulika-osagaiaren alderdiak**

Lezo, Molinao eta Herrera erretenek estalita dituzte beren ibilbidearen

1.2.B. MEMORIA PARTIKULARRA  
GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK

hainbat zati handi, Pasaiaiko portuko eremuan, oso urbanizatuta dagoenean, bat egiten dutelako. Horiek hustuketarako dituzten baldintzak aztertu beharko lirateke, batez ere arroen goi-ibarretan hirigintza-garapen berriak egitea planteatu baino lehen.

Errotaberri erretena da Itziarko industria-poligonoko hustuketa egiteko erabiltzen den ubide naturala. Horrenbestez, ubide horretara egiten diren industria-isurketen inguruko saneamendu-arazoa konpondu egin beharko da.

**Hirigintza-osagaiaren alderdiak.**

Lezo, Molinao eta Herrera erretenek, Pasaiaiko portuko inguruneak izaki, nabarmen hiriari dagozkion arazoak dituzte (ikus ertzak antolatzeako B.4.5. mapa).

Arranomendi eta Errotaberri erretenak landa-eremuak dira batez ere. Salbuespena Itziarko industria-poligonoak lehenengoan duen eragina izango da (ikus ertzak antolatzeako B.4.3. mapa).